

**ZUZENBIDE FAKULTATEA**  
**ZUZENBIDEKO GRADUA**  
**2023-2024**

**Izenburua:** MIKROENPRESEN KONKURTSOA.  
PROZEDURA BEREZIAREN INGURUKO ZENBAIT ARAZO.

**Egilea:** Iñaki Zufiria Cendoya

**Tutorea:** Igone Alzelai Uliondo

## AURKIBIDEA

1. Sarrera.....	3
2. Digitalizazioaren konplexutasuna.....	4
2.1. Prozedura bereziaren digitalizazioaren kezkak eta arazoak.....	6
2.1.1. Plataforma elektronikoa eta formulario digitalen lehen esku sartze okerra.....	6
2.1.2. Digitalizazioaren ezegonkortasuna.....	8
2.2. Prozedura bereziaren izapidetze digitalaren alderdi positiboak.....	10
2.2.1. Espainiar konkurtso prozedura zaharkituta ihes egiten.....	10
2.2.2. Jakinarazpenaren berrikuntzak eta bermeak.....	12
2.2.3. Publizitate-sistemaren bermea.....	14
2.2.4. Hartzekodunen interbentzio librearen bermea.....	15
2.2.5. Egiazkotasunezko informazioaren eta prestakuntzaren bermea...	16
2.3. Digitalizazioaren egoeraren ondorio nabarmenak.....	17
3. Profesionalak baztertearen kalteak.....	18
3.1. Prozedura berezian kostuak murriztea, ikuspuntu eta aplikazio okerra.....	19
3.1.1. Profesional eta adituen lana gutxietea.....	21
3.1.2. Adituen beharra zordunaren ikuspegitik.....	21
3.2. Mikroenpresa prozedura bereziko aditu berrien arazoak.....	23
3.2.1. Bitartekariaren figura.....	24
3.2.2. Berregituraketarako adituaren figura.....	28
3.2.3. <i>Pre-pack</i> eremuan eskaintzak jasotzen dituen adituaren mendekotasuna.....	34
4. Ondorioak.....	39
Bibliografia.....	42
Araubidea.....	44
Jurisprudentzia.....	45
Bestelako iturriak.....	45

## 1. SARRERA

Irailaren 5eko 16/2022 Legearen bidez egindako erreformak (maiatzaren 5eko 1/2020 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutakoa) Konkurtso Legearen Testu Bategina erreformatu zuen<sup>1</sup>, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2019ko ekainaren 20ko 2019/1023/EB Zuzentarauaren transposizioa egiteko (prebentziozko berregituraketaren, zorretatik libratzearen eta desgaitzeen esparruei buruzkoa eta berregituraketaren, kaudimengabeziaren eta zorrak libratzearen prozeduren efizientzia handitzeko neurriei buruzkoa), eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2017/1132/EB Zuzentaraia aldatzeko (sozietateen zuzenbidearen alderdi jakin batzuei buruzkoa), horrekin batera mikroenpresentzako prozedura bereziari buruzko III. Liburua txertatuz.

Erreforma horren goiburuan Espainiako legeria modernizatzeko beharra eta ahaleginak daude; izan ere, ezin da ahaztu mikroenpresak bezalako sektore garrantzitsu batek duen indarra, herrialdeko enpresen % 93 baino gehiago hartzen baitu eta ia bost milioi pertsonari lana ematen die.<sup>2</sup>

Erreforma honen atzean zegoen arazoa zeran datza, horrelako enpresa-proiektuen batez besteko iraupen laburrak eta txandakatze itzelak egonkortasuna zapuzten zutela. Zailtasun iragankorrak zituzten proiektu bideragarriei jarraipena ematen lagundu behar zitzaizela edo bideraezinak ziren proiektuak azkar eta eraginkortasunez amaitzen lagunduko zuen araudia behar zela. Gainera, egiaztatu da, eta errealitate bat da, orain arteko konkurtso-sistema ez dela eraginkorra izan enpresa txikiaren arazoa konpontzeko.

Arazoaren garrantzia ikusita, legegileak, neurri batean egin duen bezala, sistema berri bat diseinatu behar zuen, modernoagoa eta sistema juridiko-konkurtsaletan horrelako enpresentzat ezartzen ari ziren aldaketen ildotik jarraituz. Legearen III. Liburuaren diseinuak zordun txikiaren kaudimengabeziaren zailtasunak konpontzeko eraginkorrak izan daitezkeen neurri ugari biltzen ditu, bai eremu prozesalean, bai eremu

---

<sup>1</sup> Real Decreto Legislativo 1/2020, de 5 de mayo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley Concursal.

<sup>2</sup> MINISTERIO DE INDUSTRIA Y TURISMO, Portal IPYME, Cifras PIME 2021-2024.

substantiboan. Oro har, legegilea ausarta izan da bere ikuspegiari dagokionez, baina azken emaitzak zalantza handiak uzten ditu.<sup>3</sup>

Hori horrela, erreforma 2023ko urtarrilaren 1ean indarrean sartu zenetik, prozedura berezi eta berri horren bidez izapidetutako kasuak aztertu behar ditugu, gaur egun arte. Azpimarratu behar da lan hau mikroenpresentzako prozedura berezi eta berri honek ekarri dituen arazoak eta ondorioak aztertzean oinarrituko dela, xehetasunez aztertuz eta begirada jarriz hura indarrean sartu aurretik zein ondoren eztabaida gehien sortu diren arloetan.

Konkurtsu Legearen proiektu berria izapidetzeak, denbora laburrean, eztabaida biziak sortu izan ditu prestakuntza-ekitaldietan eta kongresuetan, mikroenpresen prozedura bereziari buruz; doktrina-lan ugari argitaratu dira, eta erregulazio berriaren kritika latzenak entzun dira. Hau dela eta, hainbat iritzi doktrinal ezberdin sortu dira, izan ere prozesu berritzaile nabarmena ekarri duen prozedura izan baita. Horren berezitasun handiena prozesua erabat digitalizatzea izan da, horrek eragin duen ukatze eta pentsaera negatiboen aurrean.

Jada urte bat igaro ondoren, hainbat arazo aurkitu dira prozedura berezi honetan, batzuk agerikoak eta eragin nabarmenak ekarri dituztenak, horiek direlarik: digitalizazioaren hutsegiteak, aditurik ez izatea, hala nola, berregituraketako aditua, bitartekaria (*mediador*), edo konkurtsu-administratzailearik ez izatea, edo masa aktiborik gabeko zordunak ihes egiteko aukerak, *pre-pack* figura, etab. Arazo guzti hauetatik, lan honen helburua arazo horietako batzuen ikerketan datza eta batez ere digitalizazioaren berrikuntza eta profesionalen beharra dira ikerketan jorratuko diren gaiak.

## **2. DIGITALIZAZIOAREN KONPLEXUTASUNA**

Egia da mikroenpresek araudi berezi bat behar dutela kaudimengabeziari aurre egiteko. Izan ere, egoera honen aurrean, baldintza larriak jasan behar dituzte: aholkularitza egokia eskuratzeko zailtasunak, konkurtsuaren gastuak beren gain hartzeko ezintasun ekonomikoa, enpresaren zorren estaldura gisa ondare pribatiboaren

---

<sup>3</sup> TIRADO MARTÍ, I. El procedimiento especial para microempresas en el texto refundido: ¿Una oportunidad perdida?, *Revista General de Insolvencias & Reestructuraciones* 7, 2022, 239 orr.

gaineko berme pertsonal eta errealak eratzea, etab., eta horiek Konkurtso Zuzenbidearen araubide orokorrari ñabardurak eta salbuespenak ezartzea justifika dezakete.

Hori horrela, KLTBren erreformaren helburu nagusietako bat prozesua arintzea eta malgutzea da, konkurtso-prozeduretan eraginkortasun handiagoa lortzeko. Helburu horiek are gehiago indartzen dira mikroenpresaren prozedura bereziaren kasuan, prozesu sinplifikatua lortu nahi baita bertan. Horretarako, lege-proposamenaren ardatzetako bat prozeduran zehar teknologia indartzea da, egintza guztiak (adibidez, prozesu-egintzak eta jakinarazpenak), epaileak emandako ebazpena barne, telematikoki egingo direla ezartzen delarik.<sup>4</sup> Era berean, komunikazioak bitarteko elektronikoen bidez egitea aurreikusten da.

Bestalde, erreformaren berrikuntza nagusietako bat likidaziorako plataforma elektronikoa bat sortzea izan zen<sup>5</sup>, enpresaren unitateak eta aktiboak besterentzeko, edo mikroenpresen egoitza eskualdatzeko helburuarekin. Plataforma horrek espezialitate horretara sartu diren enpresen aktiboak bateratu nahi ditu, KLTB 215. artikuluan aurreikusitako Estatuko Aldizkari Ofizialaren Enkanteen Atarian, enkante elektronikoen bidez ekoizpen-unitateak besterentzeko aurreikusita dagoen eran.<sup>6</sup>

Beraz, agerikoa da araudi berezi bat sortzea aukera egokia izan dela mikroenpresen konkurtsoaren eremuan. Oro har, onartuta egon arren mikroenpresek beren prozedura propioa behar dutela, oraindik ere ez da argi ikusten haren izapidetze digital eta estandarizatuarekiko dagoen obsesioa. Hori horrela, aditu askok erabateko desadostasuna eta beldurra agertu izan dute izapidetze digitala dela eta, baina bestelako iritzia duen doktrinaren zati handi batek argitasuna ikusten du legegileak hartu duen

---

<sup>4</sup> Real Decreto Legislativo 1/2020, de 5 de mayo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley Concursal (aurrerantzean LC), artículo 687.1, *Las comparecencias, declaraciones, vistas y, en general, todos los actos procesales del procedimiento especial se realizarán mediante presencia telemática.*

<sup>5</sup> PEREA GONZÁLEZ, A. La plataforma electrónica de liquidación de bienes en el Anteproyecto de Ley de reforma del Texto Refundido de la Ley Concursal: disección y perspectiva crítica, *Práctica de Tribunales: revista de derecho procesal civil y mercantil*, 152, 2021, 5 orr.

<sup>6</sup> LC artículo 215, *Hasta la aprobación del convenio o hasta la apertura de la fase de liquidación, la enajenación del conjunto de una empresa o de una o varias unidades productivas se hará mediante subasta electrónica, salvo que el juez autorice otro modo de realización.*

erronka honetan. Hortaz, bi ikuspuntuak aztertuko dira jarraian, digitalizazioaren zenbait arazo agerian utziz eta baita ere ekarri izan ditzakeen onurak azpimarratuz.

## **2.1. Prozedura bereziaren digitalizazioaren kezkak eta arazoak**

Doktrinaren alde batek, barnean epaile eta magistratu merkantilista batzuk, hainbat gatazka eta ikuspuntu ezberdinak erakusten dituzte digitalizazioaren estandarizatzearen inguruan. Ikerketa eginik denbora laburrean, ez dirudi teknologia hori eskuragarri dagoenik ez Justizia Ministerioarentzat ez zerbitzua emateko eskumena duten administrazio autonomikoentzat. Hau horrela, teknologiaren berrikuntza hau goiztiarra den modernizazio bat dela dirudi.<sup>7</sup>

### **2.1.1. Plataforma elektronikoa eta formulario digitalen lehen esku sartze okerra**

Berrikuntza goiztiarra edo presazkoa izatearen isla aurkitu daiteke digitalizazioaren barneratzearen lehenengo pausuetara joaten bagara. 16/2022 Legearen erreformaren ondorioz, JUS/1333/2022 Aginduarekin<sup>8</sup> aurkitzen gara, abenduaren 28koa, Konkurtso Legearen testu bategina aldatzen duen irailaren 5eko 16/2022 Legean aurreikusitako ondasunen likidaziorako plataforma elektronikoen inprimaki normalizatuak eta zehaztapen teknikoak betetzeko zerbitzu elektronikora sartzeko baldintzei eta funtzionatzeko moduari buruzkoa dena. Kontuan izanik KLTB 2023 urtarrilaren 1ean indarrean sartu zela, abenduaren 28an egindako agindu bat izateak zeresan handia dauka, ez esatearren *in extremis* sartu zen agindu bat dela<sup>9</sup>, kontuan izanik guztiz beharrezkoa zela plataforma elektronikoa eta formulario digitalak<sup>10</sup>

---

<sup>7</sup> NIETO DELGADO, C. Procedimiento especial de microempresas: sobrevino el desastre anunciado, *Revista General de Insolvencia & Reestructuraciones* 10, 2023, 136-140 orr.

<sup>8</sup> Orden JUS/1333/2022, de 28 de diciembre, de condiciones de acceso y modo de funcionamiento del servicio electrónico, para la cumplimentación de los formularios normalizados y de las especificaciones técnicas de la plataforma electrónica de liquidación de bienes previstas en la Ley 16/2022, de 5 de septiembre, de reforma del texto refundido de la Ley Concursal.

<sup>9</sup> NIETO DELGADO, C. *op.cit.* 140. orr.

<sup>10</sup> LÓPEZ MÁÑEZ, L. E., Reflexiones sobre la forma de cumplimentar los formularios normalizados en el Procedimiento especial de microempresas. *La Ley Insolvencia: Revista profesional de Derecho Concursal y Paraconcursal*, 17, 2023, 37. orr.

martxan abiarazteko. Horrekin ikus daiteke ukaezina dela legegilea itotzear zegoela plataforma digital berri hauek indarrean sartzeko.

Horren aurrean, denbora eman beharko litzateke horrelako plataformak modu egokian funtzionatu dezaten. Aurretik aipatu dugun bezala, *in extremis* erantsitako zerbitzua izanik, legea indarrean sartu baino hiru egun lehenago sartutako berrikuntza, pentsatzekoa da ez duela berme eta segurtasun nahikorik erakusten.<sup>11</sup> Beraz, argi ikusten da aurretiatzko prebentzioak eta probak ez direla egin eta doktrinak horren aurrean argi azalera du hainbat aurretiatzko pauso jarraitu behar zirela horrelako plataforma eta formulario digitalak sartu izan aurretik.

Jarraitu behar diren urratsei helduz, inprobisazioaren eta gehiegizko urduritasunaren ondorioz, III. Liburuan diseinatu den prozedura digitala indarrean jarri aurretik, badirudi hiru urrats eman beharko liratekeela horrelako plataforma bat indarrean sartzeko.<sup>12</sup>

Lehena, prozedura hori kudeatzeko balio behar duen plataforma teknologikoa sortzea eta testatzea da, horretarako beharrezkoak diren baliabide guztiak eskura jarriaz (behintzat, zerga-administrazioekin eta gizarte-segurantzarekin egin den neurri berean, baldin eta eraginkortasun berarekin funtzionatzea nahi bada).

Bigarren urratsa da plataforma horrek Justiziaren arloan eskumenak dituzten Estatuko eta autonomia-erkidegoetako administrazioek kudeaketa prozesalerako erabiltzen dituzten programekin duen elkarreragingarritasuna ziurtatzea. Hau ezinbestekoa da.

Hirugarren urratsa organo judizialei eta bertako langileei prozedura berri horiek kudeatzeko baliabideak eta prestakuntza ematea da, helburua ez baita soilik herritarrei tresnak eskaintzea administrazioarekin azkar eta eraginkortasunez harremanetan jartzeko, baizik eta administrazioari eta botereei ere horrelako tresnen kudeaketa ziurtatu behar zaie. Ondorioz, ulertu dezakegu horrelako digitalizazioa aurrera eramaten

---

<sup>11</sup> PEREA GONZÁLEZ, A., *op.cit.* 8 orr.

<sup>12</sup> NIETO DELGADO, C. *op. cit.* 137. orr.

denean hainbat faktore kontua izan behar direla eta ez soilik partikularren erabileraren ikuspegitik, baizik eta agintari juridikoen erabilera ere ziurtatu behar dela. Horren hutsunea nabaria izan da mikroenpresen kasuan.

Zoritarrez, pauso horietako bat ere ez zen egin, eta aurrean dugun egoera adituen usteetan *kafkiarra*<sup>13</sup> da, nahasgarria den egoera bat sortua izan delako.

### **2.1.2. Digitalizazioaren ezegonkortasuna.**

Doktrinak gogor kritikatu du mikroenpresen prozedura berezia martxan jarri zenean epaileek ez zekitela nola jardun plataforma eta formulario digitalen konplexutasunaren aurrean, izan ere, badirudi arreta gutxi eskaini zaiola garrantzi eta eragin handiko araubide berri honen idazketari<sup>14</sup>, eta ondorioz, askotan erabili izan den irtenbide bakarra I Liburuaren aplikazio subsidiarioa izan da edota artxibatze-prozesua aurrera eramatea. Horren isla dugu lehenengo hilabeteetan aurrera atera ziren kexa eta eztabaida ugariak.<sup>15</sup> Izan ere, legea aplikatzeko data iritsita, abokatuek eta prokuradoreek (nahitaez mikroenpresak ordezkatu behar dituztenak izanda, KLTB 687.6 art.<sup>16</sup>) kexu agertu ziren iragarritako bitarteko elektronikoak ez zirelako eraginkorrak. Batik bat, plataforman sartzeko, eremuak betetzeko eta formulario normalizatuak bidaltzeko arazoak zeuden eta kontuan hartu behar da horiek gabe ezinezkoa dela prozesua hastea ere, nahitaezkoak baitira.

Egoera horren aurrean, iskanbila handia sortu zen eta Justizia Ministerioaren prentsaurrekoa behar izan zen sistemaren inguruko haserrea lasaitzeko. Ministerioak azaldu zuen elkarlanaren bitartez eta etenik gabe hobetzea joango den zerbait izango zela<sup>17</sup>. Beraz, argi ikusi eta baieztatu daiteke inprobisazioaz eta behar zuen dedikaziorik

---

<sup>13</sup> *Ibid.* 138. orr.

<sup>14</sup> PEREA GONZÁLEZ, A., *op.cit.* 6 orr.

<sup>15</sup> MELER NURIA, El nuevo procedimiento para pymes insolventes encalla con la tecnología, *Cinco Días*, Bilbao, 30/01/2023.

<sup>16</sup> LC artículo 687.6, *La participación del deudor en el procedimiento especial requerirá asistencia letrada y representación procesal mediante procurador.*

<sup>17</sup> MELER NURIA, *op.cit.* *Cinco Días*.



gabe egindako digitalizazioa izan zela, ez baitzuen harrera ona izan; eta ez hori bakarrik, argi eta garbi ikusi da mikroenpresen prozeduretako kaudimengabezia-deklarazioak ez zirela abian jarri indarraldiko lehen hilabeteetan, ezinezkoak baitziren izapidetzea. Adu askok egoera hau “limbo normativo”<sup>18</sup> delakoarekin deskribatzen dute, hau da, legean aurreikusita baina errealitatean existitzen ez den plataforma baten bidez gertatu beharko lukelako.

Ondorioz, gertatu izan zena zera da, Justizia Ministerioak nahiz eta plataforma elektronikoa eta formulario digitalak eskura izan, webgunerako sarbidea eta funtzionamendua gaitua ez bazuen, interesdunaren aurkezpenak inoiz ez ziren martxan jartzen<sup>19</sup>, eta horren aurrean mikroenpresen prozedura berezia jarraitu ezinean geratzen zen. Baita ere arazoak egon ziren hartzekodunen korreoak sartzerakoan plataforma elektronikoa, etab. Ondorioz, ulertu daiteke lehenengo erabileran horrelako arazoak sortzea normala izan daitekeela, baina ikusirik kaudimengabeziaren egoera ez dela txantxetako gauza, Justizia Ministerioak lehenago esku hartu beharko zukeen eta irtenbide bizkor bat bilatu izan.

Eta ez hori bakarrik, aditu batzuen usteetan, zalantzarik gabe, araudi berriari lotutako errua konplexutasun teknikoari egotzi behar zaiola deritzote, horri gehituz merkataritza-epaileek digitalizazio horren erabilerari buruzko informaziorik eta prestakuntzarik jaso izan ez dutenarena. Bistakoa baita epaileei, Justizia Administrazioako abokatuei eta gainerako langileei ez zaiela aurreikuspenik eta prestakuntzarik egin izan.<sup>20</sup>

Puntu honetara iritsirik, jurisprudenziari dagokionez, mikroenpresen prozedura bereziaren inguruan eman diren epaiak oso eskasak dira oraingoz eta emandako auto gehienak III. Liburuko eremu subjektibora soilik dedikatu izan dira (KLTB 685.art.<sup>21</sup>). Hori horrela, digitalizazioaren berrikuntzari dagokionez, aipamen gutxi topa daitezke

---

<sup>18</sup> PEREA GONZÁLEZ, A., *op.cit.* 7 orr.

<sup>19</sup> NIETO DELGADO, C. *op.cit.* 138. orr.

<sup>20</sup> MELER NURIA, *op.cit.* *Cinco Días*.

<sup>21</sup> LC 685 art. *Ámbito del procedimiento especial*.

baina gutxi horietan plataforma elektronikoa eta tramitazio digitalak erabiltzearen alde agertzen dira batzuetan, nahiz eta epaileek ez jakin teknologia hori ondo menderatzen.<sup>22</sup>

Hau guztia ikusirik, ondorioztatu daiteke digitalizazioaren sarbidea desengainu izugarria izan dela. Ehunka profesional (agian milaka) saiatu dira inprimaki elektronikoak betetzen, baina ez dute arrakastarik izan eta errore-mezu bikainak jaso dituzte pantailetan, eskatutako datuak prestatzen ordu asko eman ondoren. Bestalde, eskaerak ez dira epaitegietara iristen, prozesu-kudeaketako sistema informatikoekiko eta Lexnet plataformarekiko interkonexioan arazoak daudelako. Interesdunek larritasun eta ezinegoneko egoerak izan dituzte konkurtsoa eskatzeko epe saihestezinak amaitzen zirela ikustean, ezin izan dituzte eta beren legezko betebeharrak bete. Gainera, epaitegietan ez da ezer egokitu prozedura berriak kudeatzeko, eta ez dago ez eredurik, ez izapidetze prozesalerako gidalibururik. Beraz, oztopo guztiak gainditzea lortzen duten espediente urriak, azkenean, epaileen mahaian bukatzen dute eta hemen inork ez daki zer egin behar den.<sup>23</sup>

## **2.2. Prozedura bereziaren izapidetze digitalaren alderdi positiboak**

Aipatutako arazoak izan arren, doktrinaren beste alde batek berriz, argitasun puntu bat ikusten du teknologia txertatu nahi honetan. Alderdi honen iritzian azpimarratzen da mikroenpresen prozedura bereziak ezaugarri propioak dituela originaltasuna ematen diotenak, eta bereziki egokiak direla enpresa txikienek Espainiako errealitate juridikoan gaur egun arte izan duten kaudimengabeziak eragindako arazoak saihesteko.

### **2.2.1. Espainiar konkurtso prozedura zaharkitutik ihes egiten**

Kaudimengabezia-prozedurak gehien atzeratzen dituzten arrazoi nagusienetako batzuk izan dira dokumentuen kudeaketa astuna eta ahozkoatasun prozesalean garrantzi handia duten azpiegitura eskasak izatea. Horiekin batera, jakinarazpenak egiteko sistemaren praktika tradizionalak eta, oro har, epaitegietako langileen baitan, sarritan

---

<sup>22</sup> Auto del Juzgado de lo Mercantil 164/2023 (sección 6 Madrid), del 13 de abril de 2023, ECLI:ES:JMM:2023:164A

<sup>23</sup> NIETO DELGADO, C. *op.cit.* 138 orr.

errekurtso urriekin, oinarritutako prozedurek, atzerapen handiak eragiten dituzte eta sistema judizial osorako alferrikako gainkarga eragiten dute.<sup>24</sup>

Konkurtoa, bere baitan, prozesu zurruna da eta kostu eta atzerapen handiak ekartzen ditu, bereziki paperan oinarritzen den prozesua delako eta mikroenpresen kasuan bereziki, ezaugarri hori kaltegarria izan daiteke, izan ere, denbora eta baliabideen beharra baitira elementu garrantzitsuak enpresa hauen kaudimengabeziari aurre egiteko.<sup>25</sup>

Bestalde, aurrez aurreko ikustaldien beharra (hartzekodunen konkurtoan ohikoa dena) izan da ere konkurto-espeditanteetan atzerapen handienak izateko arrazoietakoa bat, neurri handi batean eskuragarri dauden aretoen kopurua mugatua delako. Gertakari askoren konplexutasunik eza eta mikroenpresen kasurako jokoan dagoen zenbateko txikia kontuan hartuta, digitalizazioaren bidea bereziki egokia dela esan daiteke. Beraz, *online* formularioak erabiltzeak izapidetze-denborak eta -kostuak murrizten ditu, askoz seguruagoa bihurtzen duelarik prozedura eta gainera laguntza-osagai garrantzitsua da zordun eta hartzekodun txikientzat; izan ere, izapide horietako askorentzat, ez lukete beharko profesionalengana jotzea.<sup>26</sup>

Hori dela eta, arazo guzti horiek gainditzen saiatzeko, orain arte ikusi dugun bezala III. Liburuak azpiegitura teknologiko bat sartu zuen, errealitateko egoera honi aurre egiteko eta gure inguruko herrialdeekin bat datorren sistema bat ezartzeko. Izan ere, atzeratuta dagoen sistema bat dela ikusi daiteke espainiar konkurto prozedura.

Ondorioz, ikusirik espainiar prozedura judizialaren egoera, ukaezina da KLTB 687.1 artikulua<sup>27</sup> duen garrantzi berezia, izan ere, berariaz kontrakoa ezartzen ez den bitartean, egintza judizialak epaitegitik kanpo egingo direlako. Arau orokor hori

---

<sup>24</sup> TIRADO MARTÍ, I. *op.cit.* 246 orr. eta hurrengoak.

<sup>25</sup> *Ibid.* 246 orr.

<sup>26</sup> *Ibid.* 247 orr.

<sup>27</sup> LC artículo 687.1, *Las comparecencias, declaraciones, vistas y, en general, todos los actos procesales del procedimiento especial se realizarán mediante presencia telemática.*

gauzatzeko sistema egokia gaitzen bada, kostuetan eta epaitegietan denboran aurrezte handia eman daitezke, hori delarik bilatzen dena hasiera batetik.

Konkurto-sistema modernoak dituzten herrialde ia guztiak komunikazio telematikoetan oinarritzen dira eta espedienteen kudeaketa erabat digitalizatuta egiten da. Konkurto-eremuan, adibideren bat jartzearen, *online* formularioak erabiltzea ohikoa da Estatu Batuetan<sup>28</sup> edo Erresuma Batuan,<sup>29</sup> beste askoren artean. Oro har, pandemiaren ondorengo digitalizazioan oinarritzen dira Europar Batasunaren<sup>30</sup> eremuko estrategia eta ezarpenak. Beraz, ulertu dezakegu gaur egungo nahia Europa mailan zera dela, mikroenpresak bezalako ekonomia-bultzada eragiten duen sektore bat laguntzea eta azaleraztea, digitalizazio garbi baten bitartez. Ondorioz, ulertu daiteke digitalizazioa ekonomian eta enpresen eremuan sartzea eta ezartzea zerbait beharrezkoa eta etorkizunean saihestezina dela. Mikroenpresei dagokionez, KLTB erreformaren kutxua neurri handi batean, kaudimengabezia-zuzenbideari buruzko Nazioarteko Merkataritza Zuzenbideari buruzko Nazio Batuen Batzordearen (UNCITRAL) legegintza-gidan<sup>31</sup> jasotako kontzeptuetan eta antzeko xedapenetan oinarritzen da.<sup>32</sup>

### **2.2.2. Jakinarazpenaren berrikuntzak eta bermeak**

Legearen III. Liburuko beste berrikuntza prozesal bat jakinarazpenen sistema tradizionala aldatzea izan da. Horrela, epaitegiko langileen jardunean oinarritutako jakinarazpen-sistema zentralizatu baten ordez, III. Liburuak jakinarazpena egitearen onura jasoko duten interesdunen bizkar uzten du (adibidez, prozedura irekitzeari

---

<sup>28</sup> Ikus UNITED STATES COURTS. Bankruptcy Forms.

<sup>29</sup> Ikus UK GOVERNMENT, Bankruptcy insolvency forms.

<sup>30</sup> Ikus COMISIÓN EUROPEA, Comunicado de prensa de la Comisión Europea y de la presidencia portuguesa del Consejo de la UE Bruselas, 22 de marzo de 2021.

<sup>31</sup> Ikus UNCITRAL, Comisión de las Naciones Unidas para el Derecho Mercantil Internacional (CNUDMI) *Tabla de concordancia entre las Recomendaciones Legislativas de la CNUDMI sobre la Insolvencia de las Microempresas y Pequeñas Empresas y las recomendaciones de otras partes de la Guía.*

<sup>32</sup> DIDEA, I. eta LLIE, D.M., “A new proposal for an EU Directive and a new challenge to harmonize insolvency law rules. Creating a special insolvency regimen for SMEs - A “key” item on the EU and UNCITRAL agenda”, *Istorie, Cultura, Cetatenie in Uniunea Europeana*, 391-409 orr.

dagokionez, ikusi KLTB 692.bis.1.art.<sup>33</sup>). Horrela, epaitegien lana deskargatzen da eta tradizionalki konkurtso-prozeduren garapenean atzerapen-iturri garrantzitsu bat izan dena desagertzen da. Jakinarazpen-sistema berri hori, beste behin ere, teknologiaren erabilerak errazten du. Hortaz, zordunak edo hartzekodunek egingo dute jakinarazpena, izapidearen arabera, eta komunikazio elektronikoko bat bidaliz, betiere kopiarekin eta hori prozedura berezia izapidetzen ari den epaitegiko Justizia Administrazioaren letraduari igorri (ikusi KLTB 692.bis.2.art.<sup>34</sup>). Horrela, jasota geratzen da epaitegian jakinarazpena egin dela (edo jakinarazpena falta dela), baina horrek ez du lan-karga gehigarrikerik eragiten. Neurri horrek, beraz, ondorio positibo garrantzitsuak eragin ditzake efizientziaren eta azkartasunaren arloan.

Jakina, III. Liburuak ondorio negatiboak aurreikusten ditu jakinarazpena garaiz eta behar bezala egin ez dutenentzat. Atzerapenaren edo jakinarazpenik ezaren kaltea arau-haustean datza. Adibidez, planaren proposamena hartzekodunei ez jakinarazteak zordunaren likidazioa irekitzea dakar (KLTB 697.bis.3 art.<sup>35</sup>).

Honen aurrean, kontrako doktrinak ere zalantzak aurkitu izan ditu artikulua hauetan, adibidez, KLTB 697.bis. 2. artikulua<sup>36</sup> aztertuz gero, zera ulertu izan dute, Justizia Administrazioaren letradua behartzen da komunikazio horietako bakoitzaren kopian jartzera, Justizia Administrazioaren letraduak prozedura bitartean jasotzen duen komunikazio guztiak jaso ezker, nahiz eta Justizia Ministerioaren gaitasun teknikoei esker horrelako postak jasotzeko sarrera-ontzia egokia izan, profesional horiei

---

<sup>33</sup> LC artículo 692.bis. 1, *El deudor dirigirá comunicación electrónica de apertura del procedimiento especial a los acreedores incluidos en su solicitud de cuya dirección electrónica tenga constancia, permitiéndoles el acceso a toda la documentación presentada en el juzgado. En caso de que el deudor sea persona casada, la comunicación se hará también al cónyuge. Cuando el procedimiento especial hubiese sido declarado a solicitud de un acreedor o de un socio personalmente responsable, el deudor dirigirá a los acreedores la comunicación a que se refiere este apartado.*

<sup>34</sup> LC artículo 692.bis.2, *Cada comunicación se dirigirá simultáneamente al letrado de la Administración de Justicia.*

<sup>35</sup> LC artículo 697.bis.3, *La falta de comunicación o la comunicación extemporánea del deudor a los acreedores constituirá causa de conversión del procedimiento en uno de liquidación, que se declarará por el juez de oficio o a instancia del deudor o de los acreedores.*

<sup>36</sup> LC artículo 697.bis.2, (...) *El letrado de la Administración de Justicia recibirá en copia cada comunicación realizada por el deudor a los acreedores.*

lan-kargak gaindituko diote. Erreformaren helburua prozedurak arintzea eta desjudizializatzea bada, epaitegietako helbide elektronikoa kolapsatzea, komunikazio ugari izanez epaitegietan, horrek, nekez lagunduko du helburu horiek lortzen.<sup>37</sup>

### 2.2.3. Publizitate-sistemaren bermea

Legeak publizitatea konkurtso-erregistro publikoan biltzea aurreikusten du, bitarteko gehigarrietan argitaratu beharrik gabe eta Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu beharrik gabe (KLTB 692 bis.3 art.<sup>38</sup>). Neurria positiboa da zalantzarik gabe, izan ere, toki bakar batean biltzen ditu linean eta kosturik gabe prozeduraren funtsezko alderdiak, eta, beraz, hartzekodunek (daudenak) eta beste interesdun batzuek (adibidez, hartzekodun potentzialak, merkatuan zordunarekin harremanetan jartzen direnak) beti jakin dezakete nora jo zordunaren konkurtso-informazioa aurkitzeko. Askoz errazagoa eta azkarragoa da izenaren araberako bilaketa-erregistro batera joatea aldizkari orokor batera baino. Izan ere, aldizkari orokor horretan, bilaketa zailagoa egiten da informazio gehigarri askoren artean, zordun bat (existitzen dena edo egon daitekeena) konkurtso-egoeran dagoen ala ez ikertu behar delako.<sup>39</sup>

Era berean, Konkurtso-Erregistro Publikoan argitaratzea “zorduna eta helbide elektronikorik ez duten hartzekodunak” jakinarazpen formaltzat hartu behar da (KLTB 692 bis.3. art.) hartzekodunek prozedura irekitzeko eskaera egiten dutenean. Oro har, alderdiek sarritan sofistikazio txikiagoa duten prozedura mota horietan arazoak sor daitezke ebazpenak eta komunikazioak jakinaraztean.

Prozedura atzeratzera edo ondorio prozesal jakin batzuk saihestera bideratutako jarduera ez oso etikoak saihesteko, komeni da banakako jakinarazpenaren orde

---

<sup>37</sup> MONZÓN CARCELLER, N., El procedimiento especial de concurso para microempresas del Proyecto de Ley de Reforma del Texto Refundido de la Ley Concursal, *Diario La Ley*, 10122, 2022, 13. orr.

<sup>38</sup> LC artículo 692.bis.3, *La apertura del procedimiento especial será publicada en el Registro público concursal. En caso de apertura a solicitud de los acreedores, la publicación en el Registro público concursal surtirá los efectos de notificación respecto del deudor y demás acreedores de cuya dirección electrónica no se tenga constancia.*

<sup>39</sup> TIRADO MARTI, I. *op. cit.* 249 orr.

publizitate-sistema objektiboak, kosturik gabekoak eta erraz eskuratzekoak erabiltzea, sistemak ondo funtziona dezan. Modu horretara, jakinarazpen eta publizitate arazo ugari saihesten dira eta zordun zein hartzekodun ororekiko bermea egongo da.<sup>40</sup>

#### **2.2.4. Hartzekodunen interbentzio librearen bermea**

Orain arte ikusi diren abantaila hauek ere beste ikuspuntu bat dute, izan ere ohartu behar gara Konkurtso-Erregistro Publikoan argitaratzeak berme itzelak ekartzen dituela hartzekodun guztientzat. Jada gauza ez da soilik bertan ikuskatu ahal izango dutela zordunaren egoera, baizik eta jakinean egongo dira zein egoeran dagoen une oro, eta horren berri jakinarazpenak jasoko dituzte.

Beraz, III. Liburuko prozedura bereziaren oinarria alderdien esku-hartze handiago izatean datza (bai zordunak, bai hartzekodunak), horretarako informazio gehiago eman edo eskaini behar zaie, I. Liburuko konkurtso-prozeduran baino modu zuzenagoan. Kasu honetan, hartzekodunen jarrera ez da soilik oinarrituko zordunak emandako baieztapen eta dokumentazioen gainean, Estatuko Aldizkari Ofizialeko ediktu-taula bakarrean eta Konkurtso-Erregistro Publikoan argitaratu ondoren (hartzekodunei informazioa emateko baliabide ez oso eraginkorrak direnak)<sup>41</sup>. Aitzitik, zordunak egin behar duen prozedura bereziaren irekierari buruz, honek jakinarazpen elektronikoko indibidualak egingo ditu hartzekodun bakoitzari (KLTB 692 bis art.<sup>42</sup>), eta, gainera, epaitegian aurkeztutako dokumentazio guztia hartzekodunen eskura jarriko ditu.

Hau ikusirik, baieztatu daiteke hartzekodunek baliabide ikaragarri indartsua dutela beraien eskuetan, bestelako kaudimengabeziako prozeduretan dutena baino gehiago.

---

<sup>40</sup> *Ibid.* 249. orr.

<sup>41</sup>Auto del Juzgado de lo Mercantil 1903/2023 (sección 2 Santander), del 11 de julio de 2023, ECLI:ES:JMS:2023:1903A

<sup>42</sup> LC artículo 692.bis.1, *El deudor dirigirá comunicación electrónica de apertura del procedimiento especial a los acreedores incluidos en su solicitud de cuya dirección electrónica tenga constancia, permitiéndoles el acceso a toda la documentación presentada en el juzgado. En caso de que el deudor sea persona casada, la comunicación se hará también al cónyuge.*

## 2.2.5. Egiazkotasuneko informazioaren eta prestakuntzaren bermea

Digitalizazio honek ere atzean beste berme indartsu bat du, mikroenpresen prozeduraren hartzekodunen ezagutza eta esku-hartzea izateko berme berezi hori indartu egiten duena. Zordunak emandako informazioaren egiazkotasun-betebeharrari dagokionez, hau “prozeduraren zutabe” gisa kalifikatu izan da zioen azalpenean, eta konkurtsoa erruzko kalifikatzeko kausa espezifiko bihurtu da III. Liburuan (KLTB 688. eta 718.2 art.<sup>43</sup>). Horrela, iruzurraren kontrol handiagoa ahalbidetzen da, hartzekodunak behar bezala informatuta daudelarik (teknologia honi esker), esku hartu dezaketelarik horri aurre egiteko.<sup>44</sup>

Hau horrela, KLTB aztertzen jarri ezker, bere 718.2 artikulua 688. artikulura bideratzen gaitu. KLTB 688. artikulua<sup>45</sup> errudun kalifikatzeko egoera azaltzen du, esanez, prozedura berezia erruduntzat joko dela, edozein kasutan, zordunak zehaztasun falta larria egiten duenean prozedura berezia izapidetzean bidalitako inprimaki normalizatuetan edo horiekin batera aurkeztutako dokumentuetan, edo dokumentu faltsuak erantsi edo aurkeztu dituenen. Hori horrela, zehaztasun falta larria dagoela ulertuko da, baldin eta ekitaldi bateko zenbateko osoa, pasiboarena, aktiboarena, sarrerena edo gastuena formularioan kontsignatutakoa baino ehuneko hogeitahi handiagoa edo txikiagoa bada, eta gutxienez 10.000 eurokoa bada.

---

<sup>43</sup> LC artículo 718.2, *Respecto a las presunciones de culpabilidad, se considerará además como presunción, sin admitir prueba en contrario, la provisión de información o documentación gravemente inexacta o falsa de acuerdo con el artículo 688.*

<sup>44</sup> Auto del Juzgado de lo Mercantil 1903/2023 (sección 2 Santander), del 11 de julio de 2023, *op.cit.*

<sup>45</sup> LC artículo 688, 1. *El procedimiento especial se calificará como culpable, en todo caso, cuando el deudor hubiera cometido inexactitud grave en cualquiera de los formularios normalizados remitidos o en los documentos acompañados a los mismos presentados durante la tramitación del procedimiento especial, o hubiera acompañado o presentado documentos falsos.* 2. *Si el juez, las partes o, en su caso, la administración concursal, apreciaran la posible existencia de un hecho que ofrezca apariencia de delito no perseguible únicamente a instancia de persona agraviada, se acordará poner a disposición del Ministerio Fiscal el expediente judicial electrónico, por si hubiere lugar al ejercicio de la acción penal. Se entenderá que se incurre en inexactitud grave cuando el importe total de un ejercicio, del pasivo o el del activo o el de los ingresos o el de los gastos fuese realmente superior o inferior al veinte por ciento del consignado en el formulario, siempre que suponga un importe de al menos 10.000 euros.*



Beraz, bistakoa da hartzekodunen aldeko beste berme baten aurrean aurkitzen garela. Hori bai, egoera honen aurrean doktrina kexu azaldu da aditu baten beharrari dagokionez, baina hori hurrengo puntuetan azalduko da.

Azkenik, aditu batzuen ustetan, soluzio gisa aipatzen dute, III. Liburuko sistemari buruz eta batik bat neurri teknologikoei erreferentzia eginez, orokorrean publizitate- eta prestakuntza-neurri bereziak hartu beharko lirateke enpresaburu txikientzat. Publizitate-kanpainak eta prestakuntza-ikastaroak antolatu beharko lirateke enpresa txiki eta ertainak babesteko eta sustatzeko erakunde publiko eta pribatuen bitartez (merkataritza-ganberak, enpresa-elkarteak eta abar), bereziki langile autonomoen elkarteak ere barnebilduz. Heziketa publiko orokorreko neurri horiei esker, adibidez, eta beste hainbat alderdiren artean, Konkurtso-Erregistro Publikoa ezagutuko litzateke hartzekodun batek bere zordunaren kaudimengabeziari buruzko zalantzak dituenean, eta, horrela, garaiz jardun ahal izango luke. Aukera paregabe bat bezala ikusi daiteke prestakuntza-neurri hauek erabiltzea digitalizazio mundu honetara moldatzeko.<sup>46</sup>

### **2.3. Digitalizazioaren egoeraren ondorio nabarmenak**

Orain arte ikusitakoarekin, ondorioztatu daiteke mikroenpresen kaudimengabezia dela Espainian konpondu gabe dagoen arazo juridiko eta ekonomiko handienetako bat; nabaria baita orain arteko sistemaren funtzionamendu okerra. Egoera hori ikusita, arrazoizkoa da legegilea kutsu prozesal handiko sistema aldatzen saiatu izana; eta aitortu beharra dago ikuspegi ausarta eta modernoa izan dela Espainiako sistemari irtenbide bat emateko ahaleginak egitea. Erabat positiboa den irtenbidea izan da.<sup>47</sup>

Zalantzarik gabe, zenbait alderdik balorazio positiboa merezi dute III. Liburuak sortutako sistemaren gainean: malgutasun prozesal handia, arintze-neurriak, beharrezkoak ez diren kostuen murrizketa, prozeduren denbora murriztea, eta, ziur asko, teknologia ia nonahikoa izatea, zeina funtsezkoa izan baita denborak arintzeko eta

---

<sup>46</sup> TIRADO MARTI, I. *op. cit.* 274-275 orr.

<sup>47</sup> TIRADO MARTI, *op.cit.* 269. orr.

jarduketa eraginkorren emaitzak maximizatzeko gure inguruko sistemetan; edota aktiboa likidatzeko sistema objektibo eta sinplifikatu bat sartzea, etab.

Ez da hain erraza izango, ziurrenik, paperezko dokumentuen erabilera eskusiboan oinarritutako praktikak daramatzaten epaitegi batzuetan teknologia hau eraginkortasunez txertatzea, baina aldaketa saihestezina da, aurretik edo ondoren egin beharrekoa. Nolanahi ere, funtsezkoa dirudi adieraztea testu bateginak sortutako mikroenpresen prozedura bereziaren sistema ez litzatekeela indarrean jarri beharko gaur egun epaitegietan dagoen teknologian oinarrituta, izan ere, lortu nahi denaren aurkako ondorioa sor daiteke eta, epaitegiak are gehiago blokeatuz. Nahiz eta hasiera batean ziurgabetasuna sortu teknologia berri honen diseinuak eta bere erabilerak, zailtasun teknikoak ez dira gaindiezinak, eta horri aurre egin daiteke, bere denbora behar duelarik noski. Azken finean, mikroenpresen prozedura bereziaren arrakasta edo porrota KLTB legean aurreikusitako teknologiaren azpiegituraren erabilera onaren mende egongo da.<sup>48</sup>

### **3. PROFESIONALAK BAZTERTZEAREN KALTEAK**

Irailaren 5eko 16/2022 Legearen bidez egindako erreformak, Konkurtso Legearen proiektu berria izapidetzea ekarri zuenak, eztabaida biziak sortu izan zituen, batik bat mikroenpresen prozedura bereziaren inguruan. Hori horrela, erreforma honek ekarri duen beste arazo handi bat aztertuko da oraingo honetan, zehazki, eragile juridikoen artean kritikarik handiena sortu zuen alderdi prozesal bat. Kritika honek, erreformaren aurre-proiektuaren 688.6 artikuluan du jatorria (gaur egungo KLTB 687.6 artikuluan, aldatuta dago<sup>49</sup>). Bertan arautzen baitzen ez zela nahitaezkoa zordun mikroenpresariak abokatuaren laguntza izatea, ez eta ordezkaritza prozesalik ere. Hau abiapuntu bezala hartu behar da, izan ere, hemendik hasi baitzen profesionalen parte hartzea baztertzen. Jarraian aztertuko da adituen baztertze horrek ekarri dituen ondorioak.

---

<sup>48</sup> BERMEJO, N., FERNÁNDEZ SEIJO, J. M., MARTÍN MARTÍN, A., ARRUÑADA, B. eta DE LA FUENTE, A., Comentarios al proyecto de reforma concursal. *Fedea Policy Paper*, 3, 2022, 16 eta 19 orr.

<sup>49</sup> LC artículo 687.6, *La participación del deudor en el procedimiento especial requerirá asistencia letrada y representación procesal mediante procurador.*

### 3.1. Prozedura berezian kostuak murriztea, ikuspuntu eta aplikazio okerra

Lege berrian diseinatutako prozedura bereziaren helburua izapidetze-kostuak murriztea da, beharrezkoak ez diren izapide guztiak ezabatuz eta profesionalen, adituen eta agintarien parte-hartzea murriztuz, ezinbesteko funtzio bat betetzen duten edo alderdiek beren borondatez kostua beren gain hartzen duten kasuetara mugatuz<sup>50</sup> eta noski hori guztia egitea prozeduran parte hartzen dutenen eskubideen babes osoari kalterik egin gabe.<sup>51</sup> Hortaz, profesionalen parte hartzearen beharra baztertu zen hasiera batetik eta horien laguntza behar ezker, kostuak borondatez jasango dituztela argitu zen.

Gai hori kritikaren iturri izan da, izan ere, gai horretan espezializatuta ez dauden pertsonentzat eta legegileak sartutako aurrekonkurto-tresna berrietan (adibidez, *pre-pack administration*, berregituraketarako aditua, bitartekari, etab.) espezializatuta ez dauden pertsonentzat (ia mikroenpresen enpresari guztiak) konkurto-prozedura konplexua izan daiteke,<sup>52</sup> eta, gainera, sarritan ezagutza finantzario gutxi izaten dituzte.<sup>53</sup> Argi dago ezaugarri hauen falta mikroenpresetako enpresari gehienak izango dituztela.

Gainera ez hori bakarrik, ordezkari juridiko baten laguntza kentzearekin batera, beste figura garrantzitsu batzuen esku hartzea ere mugatu izan zen, esaterako, berregituraketaren aditua, bitartekariaren figura edota konkurto administratzailearen figura. Horren aurrean, nazioarte mailako erakunde garrantzitsuak ere beldur agertu

---

<sup>50</sup> MONEREO PÉREZ, J.L.; RODRÍGUEZ ESCANCIANO, S; RODRÍGUEZ INIESTA, G., Aproximación al contenido laboral de la ley 16/2022, de 5 de septiembre, de reforma del texto refundido de la ley concursal: apostando por la lógica “preventiva”, “reestructuradora” y “conservativa” de la empresa y del empleo, *Revista Crítica de Relaciones de Trabajo, Laborum*, 5, 2022, 26-27 orr.

<sup>51</sup> Proyecto de Ley de reforma del texto refundido de la Ley Concursal 121/000084, Boletín Oficial de las Cortes Generales, 2022.07.07, Zioen azalpena, bostgarrena, 16. orr.

<sup>52</sup> RIVAS URBINA, R. Enajenación de la unidad productiva y *pre-pack* en el proyectado procedimiento especial para microempresas, *Anuario de derecho concursal*, 56, 2022, 121-146 orr.

<sup>53</sup> BANCO DE ESPAÑA, *Encuesta de competencias financieras en las pequeñas empresas 2021: principales resultados*.

ziren ziurgabetasun eta babes faltaren aurrean.<sup>54</sup> Nola ez, profesional falta honek zalantzak sortu zituen mikroenpresentzako prozedura bereziaren eraginkortasunaren inguruan. Abokatuaren figura, ordezkari juridiko bezala, baztertzeak kezka sortu zuen, baina are gehiago konkurtso-administratzailearen figura kentzeak. Izan ere, mikroenpresa prozedura gehienetan konkurtso-administratzailea alde batera uzteak, haren kontrola zordunaren esku uztea dakar, jokabide oportunistak eta arrisku moraleko arazoak ekar ditzake, profesional independente baten gainbegiratze falta dagoelako. Ildo horretan, baloratu beharko da, araudi berriaren balizko ondorio horiek zer neurritan gauzatzen diren eta zer intentsitaterekin.<sup>55</sup>

Hau horrela, mikroenpresentzako prozedura berezi bat sortzea neurri egokia bada ere, dakartzan berrikuntza asko direla eta, ziurgabetasun handia sortu izan du. Eta ez soilik profesionalen eremuan, orain ikusten ari garen moduan, baizik eta aurretik azaldutako digitalizazioaren aplikazioak ere kezka ikaragarria ekarri du, esaterako, aktiboak likidatzeko plataforma elektronikoaren sorrerak ere ikuspuntu ezberdin asko sortu izan ditu. Doktrinaren zati bat honen kontra agertu da, ez baitzen beharrezkoa hau sortzea Enkanteen Ataria existitzen baitzen<sup>56</sup>, eta beste alderdi batek berriz, horren berrikuntza behar dela defendatzen du<sup>57</sup>. Horrelako iritzi kontrajarrietan ikusten da ziurgabetasun hori.

Azken finean, erreformak lortu nahi duena zera da, arintasuna eta kostuen murrizketa, baina kontrako efektua ekar dezaketen neurriak izan daitezke hauek, adibidez, prozeduran berme falta egon daiteke. Hala ere, zuzenketa batzuk hasierako bertsioaren desabantaila ugariak hobetu baditu ere (abokatuaren beharra txertatuz esaterako), arauaren gabezia askok irauten dute oraindik. Batzuen ustez, horrek, ziurrenik, prozedura erreformatzera behartuko du, indarrean sartu eta gutxira.<sup>58</sup>

---

<sup>54</sup> BANCO DE ESPAÑA, *Informe Anual 2021*, Madril, 2022, 162 orr.

<sup>55</sup> MONZÓN CARCELLER, N. *op.cit.* 7 orr.

<sup>56</sup> PEREA GONZÁLEZ, A., *op.cit.* 4. orr.

<sup>57</sup> SANTISO VÁZQUEZ, F. ¿Puede celebrarse una venta de la unidad productiva a través del portal de subastas del BOE?, *La Ley Insolvencia*, 5, 2021, 5 orr.

<sup>58</sup> MONZÓN CARCELLER, N. *op.cit.* 27 orr.

### **3.1.1. Profesional eta adituen lana gutxiestea**

Mahai gainean jarri beharra dago profesional hauen eginkizuna ez dela formularioen edo programa informatikoen bidez egin daitekeen zerbait, baizik eta haratago eskaintzen dituzten funtzioak betetzen dituzte. Doktrinaren gehiengoa honen aurka agertu da, izan ere, aditu hauen lana gutxien da eta prozeduran berme falta handia egon daitekeela kritikatzeko da.

Doktrina honen kexuak eta ahotsak eragina izan zuen, erreforma indarrean sartu baino lehenago aldaketak ekarriz, esaterako, 2022ko urtarrilaren 14an Gorte Nagusietako Aldizkari Ofizialean argitaratutako lege-proiektuan,<sup>59</sup> oro har, ez zen nahitaezkoa abokatuaren eta prokuradorearen esku-hartzea prozedura berezian, ez zordunarentzat, ez hartzekodunentzat. Aldiz, 2022ko uztailaren 7an Gorte Nagusiaren Aldizkari Ofizialean argitaratutako lege-proiektuak<sup>60</sup> artikulu berriari ematen dion idazketan zera eskatzen da, bi profesionalek nahitaez esku hartu behar dutela, hau da, zordunak prozedura berezian abokatuaren laguntza eta prokuradore bidezko ordezkari prozesala beharko dituela (KLTBren 687.6 artikulua<sup>61</sup>).

Hortaz, legegilea ohartu izan zen aditu hauen behar minimo bat ezinbestekoa zela mikroenpresa prozedura berezian eta proiektuaren idazketa aldatzea erabaki zuen, hori goraiatzeko zerbait izan da. Doktrinaren gehiengoa konkurtsoko abokatuaren eta prokuradorearen nahitaezko esku-hartzearen alde agertu izan da.

### **3.1.2. Adituen beharra zordunaren ikuspegitik**

Orain arte ikusi denez, doktrinak gogor kritikatu zuen profesionalak egoteko derrigortasuna kentzea. Horren arrazoia izan baita zordunaren ezjakintasuna funtzio horiek betetzeko garaian eta baita ere zordun honen bermeak kaltetua atera

---

<sup>59</sup> Proyecto de Ley de reforma del texto refundido de la Ley Concursal, *Boletín Oficial de las Cortes Generales*, 2022.01.14.

<sup>60</sup> Proyecto de Ley de reforma del texto refundido de la Ley Concursal 121/000084, *Boletín Oficial de las Cortes Generales*, 2022.07.07 *op.cit.*

<sup>61</sup> LC artículo 687.6, *La participación del deudor en el procedimiento especial requerirá asistencia letrada y representación procesal mediante procurador.*

daitezkeela. Ildo beretik, zehazten zen, konkurtso-prozeduraren berezko konplexutasuna kontuan hartuta, konkurtsoaren prestaketa eta aurkezpena zordunaren esku uzteak, masaren kargurako aholkularitzarik gabe, merkataritza-arloko epaitegiei kontrako eragina eragingo liekeela, hauen gainkarga handituz.<sup>62</sup>

Zentzugabea zen pentsatzea zorduna gai izango litzatekeela eman behar zituen datuak ezagutzeko, sistema telematikoak erabiltzeko eta ikustaldietara *online* joateko, eta horrek segurtasun juridikoaren eta benetako babes judizialaren printzipioak urratzeko arriskua dakar.<sup>63</sup> Indefentsio hori ikusiko da enpresaburu zorduna hartzekodun profesionalekin harremanetan jartzen denean, edota finantza-erakundeekin eta administrazio publikoekin harremanetan jartzean; izan ere, bistako da, azken hauek aholkularitza juridiko egokia izango dituztela, eta beraz, desberdintasun-egoera batean aurkituko da zorduna hauen aurrean, ez esatearren baldintza okerragoak izan ditzakeela besteekiko. Horregatik guztiagatik, praktikan, nahitaezkoa ez bada ere, aditu batzuen aburuz, gomendagarriena da enpresaburuak prozedura horietan aditua den lege-aholkulari batekin batera joatea, defentsa-gabeziako egoerak saihesteko, hori arrakala digitalak ekar ditzakeen arriskuez gain.<sup>64</sup>

Hau horrela, argi eta garbi ikusi daiteke adituen beharra ezinbestekoa dela eta gehiago mikroenpresen kasuan, izan ere, bizkortasunean oinarritutako prozedura batean, epeak hain laburrak direnean, adituen aholkuak eta jarraipenak ezinbestekotzat ikusten dira. Horren adibideren bat ematearren, KLTB 697 bis.2 eta 3. artikuluetan<sup>65</sup> zorduna jarraipen-planaren proposamena izapidetzeko onarpenaren ondorengo egoeran aurkitu daiteke, bere zeregina delarik horren berri elektronikoki hartzekodunei komunikatzea, Justizia Administrazioaren letraduaren jakinarazpenetik hiru egun balioduneko epean proposamena behar bezala egin dela berretsiz, edo hiru egun horiek igaro eta Justizia Administrazioaren letraduak jakinarazpenik egin ez badu. Beraz, zordunak epe oso

---

<sup>62</sup> REVENGA, J. El concurso de microempresas: la perfecta cacharrería para elefantes en crisis, *Hay Derecho*, 2021.10.01.

<sup>63</sup> MONZÓN CARCELLER, N. *op.cit.* 9 orr.

<sup>64</sup> ESCOLÁ BESORA, M.E., Concursos de microempresas sin abogado. ¿Será la solución?, *Cinco Días*, 2024.02.18.

<sup>65</sup> LC artículo 697.bis. *Tramitación de la presentación del plan.*

laburrean ekimena hartu behar du, epe horretan ez badu jarduten eta zordunak hartzekodunei jakinarazpenik egiten ez badie edo epez kanpo komunikatzen badu, prozedura likidazio-prozedura bihurtzeko arrazoia izango da, eta epaileak ofizioz edo zordunak nahiz hartzekodunek hala eskatuta deklaratuko da.

Honek zordunaren egoera ekonomikoa aldatu dezake, txarrera eginez. Hortaz, ikusi daiteke zordunak pisu ikaragarria izango duela mikroenpresa prozedura berezian, eta horri aurre egiteko, laguntza izatea ezinbestekoa izango da edozein akats edo ezustekoren aurrean, izan ere, bere enpresa zein bere egoera ekonomikoa aldatu daitekeelako une batetik bestera, azkartasun ikaragarri batean.

Laburbilduz, agerikoa da partikular edo enpresari batek hau dena kontuan izatea ikaragarri zaila dela, erabat kontrajarri delarik adituen beharra murriztea. Gainera, ez gara prozesu sinple baten aurrean aurkitzen, erabaki oro oso garrantzitsuak izango dira eta erabaki estrategiko asko hartu beharko dira, bai enpresak aurrera jarraitzeko edota bai modu egoki batean desegiteko. Azken finean, egoera eta inguruabar guzti horiek beharrezkotzat egiten dute gutxienez aditu baten interbentzioa.

Hau esanik, nahiz eta KLTB legearen erreformak mikroenpresen araudian aldaketak izan dituen, eta abokatuaren eta prokuradorearen interbentzioaren beharra ezartzen den, oraindik ere bestelako adituen eginkizunetan hutsuneak eta arau kontrajarriak bilatu daitezke, eta horien beharra eta garrantzia azpimarratu behar da.

### **3.2. Mikroenpresa prozedura bereziko aditu berrien arazoak**

Irailaren 5eko 16/2022 Legearen bidez egindako erreformak (maiatzaren 5eko 1/2020 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutakoa) Konkurtso Legearen Testu Bategina erreformatu zuenak, helburutzat Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2019ko ekainaren 20ko 2019/1023 (EB) Zuzentarauaren<sup>66</sup> transposizioa egitea zuen,

---

<sup>66</sup> Directiva (UE) 2019/1023 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 20 de junio de 2019, sobre marcos de reestructuración preventiva, exoneración de deudas e inhabilitaciones, y sobre medidas para aumentar la eficiencia de los procedimientos de reestructuración, insolvencia y exoneración de deudas, y por la que se modifica la Directiva (UE) 2017/1132 (Directiva sobre reestructuración e insolvencia), Zioen azalpenak, ik. 1 eta 2.

bertako helburuak eta garapenak lortzeko, hala nola, enpresa bideragarrien jarraitutasuna bermatzea, baita enpleguari eustea ere berregituraketa goiztiarreko mekanismoen bidez, etab.

Aplikazio horien ondorioz, aurretiazko fase hauetan aditu berri batzuen figura ekarri zuen. Aditu hauek berezko garrantzia lortu dute mikroenpresen kaudimengabeziari aurre egiteko, eta lan honetan horietako batzuk ikertuko dira, bereziki: konkurtsoko bitartekaria, *prepackeko* enpresa baloratzaille edo begirale aditua eta berregituraketarako aditua.

### 3.2.1. Bitartekariaren figura

Bitartekariaren figura aztertzeko, lehenik eta behin, bitartekaria zer den ikusi behar da. Auzi Zibil eta Merkataritzazkoetako Bitartekaritzari buruzko uztailaren 6ko 5/2012 Legea<sup>67</sup> eta hura garatzen duen erregelamendua, hau da, Auzi Zibil eta Merkataritzazkoetako Bitartekaritzari buruzko uztailaren 6ko 5/2012 Legearen alderdi jakin batzuk garatzen dituen abenduaren 13ko 980/2013 Errege Dekretua<sup>68</sup> indarrean jarri ondoren bultzatua izan zen bitartekaritza figura gure ordenamendu juridikoan. Hori horrela, 5/2012ko Legearen 1. artikuluan bitartekariaren kontzeptua aurkitu daiteke. Bitartekaritza eztabaidak konpontzeko bide alternatibo bat izango da eta bertan, bereziki bi alderdik edo gehiagok beren borondatez saiatuko dira bitartekari baten esku-hartzearekin batera akordio bat lortzen.<sup>69</sup>

Kasu honetan, bitartekaria independentea izan behar du eta negoziazioa bultzatu behar duen pertsona izan beharko da.<sup>70</sup> Definizio eta helburu hauek legeak ezartzen ditu,

---

<sup>67</sup> Ley 5/2012, de 6 de julio, de mediación en asuntos civiles y mercantiles.

<sup>68</sup> Real Decreto 980/2013, de 13 de diciembre, por el que se desarrollan determinados aspectos de la Ley 5/2012, de 6 de julio, de mediación en asuntos civiles y mercantiles.

<sup>69</sup> Ley 5/2012, de 6 de julio, de mediación en asuntos civiles y mercantiles, artículo 1, *se entiende por mediación aquel medio de solución de controversias, cualquiera que sea su denominación, en que dos o más partes intentan voluntariamente alcanzar por sí mismas un acuerdo con la intervención de un mediador.*

<sup>70</sup> FLOYER ACLAND, A., *Cómo utilizar la mediación para resolver conflictos en las organizaciones*, Paidós, Bartzelona, 1993, 16. orr.



baina merkataritza arlora etortzean, aurreko xedapen eta legedian aipatutako bitartekaritzak ezer gutxi gehitzen du merkataritza-konkurtsu eremuko bitartekariari dagokionez, eta beraz, legeak ulertzen du ez gaudela bestelako bitartekaritza ezberdin baten aurrean, nahiz eta bere berezitasunak dituen bitartekaria izan, konkurtsu-eremuko gatazkaren tipologia dela eta. Hortaz, kasu honetan esan behar da, legeari gehikuntza bat eginez, konkurtsoko bitartekaria konkurtsu zuzenbideko aditua izan behar duela, teknikoa izan beharko du gai horretan. Hau da, konkurtsu-bitartekariak garatu nahi dituen eginkizunak kontuan hartuta, eta kasu gehienetan konkurtsu-administratzaile gisa jardungo duenez negoziazioek huts egiten badute, komenigarria litzateke betekizun hori konkurtsu-bitartekariaren kargua beteko dutenei gehitzea<sup>71</sup>. Beraz, figura honi gehitu behar zaio, bitartekaria konkurtsu aditua izateaz gain bi alderdien negoziazioa bultzatu beharko duela.<sup>72</sup>

Gainera, autore batzuen iritziz, bitartekari figura hau mikroenpresaren prozedura berezian ez dute benetako bitartekari kontsideratzen, baizik eta *ex novo* sortutako figura hibridotzat hartzen dute, negoziatzaile kualifikatu baten figurara gerturaten den bitartekaritzat hartuz.<sup>73</sup>

Beraz, konkurtsoko bitartekariaren funtzioa prozedura berezi honetan zeran datza, jarraipen-plan bat negoziatuko du zordunaren eta hartzekodunen artean, eta, horretarako, gehienez ere hamar egun izango ditu. KLTB 702. artikuluan<sup>74</sup> soilik arautzen da bitartekariaren figura hau. Zordunak eskatu dezake edota hartzekodunen

---

<sup>71</sup> CABANAS TREJO, R. eta RIVAS RUIZ, A., *El acuerdo extrajudicial de pagos en el Texto Refundido de la Ley Concursal*, Aferre, Bartzelona, 2020, 104 orr.

<sup>72</sup> GALEOTE MUÑOZ, M., Mediación Concursal el acuerdo extrajudicial de pagos y el mediador concursal, *Working Paper IE Law School*, AJ8-226, 30.07.2015, 4 orr.

<sup>73</sup> CABANAS TREJO, R. eta RIVAS RUIZ, A., *op.cit.* 100 orr.

<sup>74</sup> LC artículo 702, *El deudor o acreedores cuyos créditos representen al menos un veinte por ciento del total del pasivo podrán solicitar la designación de un mediador concursal en cualquier momento desde la apertura del procedimiento especial hasta el final del plazo de votación.*

2. *La designación del mediador concursal tiene como única finalidad la negociación de un plan de continuación entre el deudor y los acreedores, y se regirá por lo dispuesto en este artículo y por lo dispuesto para el nombramiento de un experto en la reestructuración en este libro en cuanto a la elección, designación y retribución.*

kredituaren pasibo totalaren %20 dutenen artean ere. Bitartekariaren helburu bakarra beraz, zordun eta hartzekodunen arteko jarraipen-plana negoziaketa aurrera eramatean datza.<sup>75</sup>

Honen aurrean, doktrinaren alde batek zera uste du, legeak bitartekari figura negoziazio adituarekin konfunditzen duela, biak izaera berdina izango balute bezala, eta hori ez da horrela. Bitartekariak alderdiei lagundu behar die jarraipen-planari buruzko akordio batera iritsi daitezten eta negoziazioan berriz alderdiek bakarrik negoziatu behar dute, eta bitartekaritzara joaten direnean, teknikoki laguntza behar dutelako da (aurretik esan dugun bezala, bitartekariak konkurtsoko ezagutzak izan behar ditu) edota komunikazioari dagokionez harremana kaltetuta dagoelako jotzen da. Azken egoera honetan, legeak ez du arautzen, baina ezin da ziurtzat hartu bitartekariak bitartekari ezagutzak badituela. Hau da, bermatu behar da bitartekariak komunikatu ezin diren alderdien arteko harremana berregitea lortzen jakingo duela, baita ere jarraipen-planerako proposamenak egiten lagunduko duela, eta azkenik, bitartekariaren bidez komunikatu ahal izateko ahalegina egitea lehendabizi, gero akordio batera iristea lortzeko edo, beste era batera esanda, aurrera eraman beharreko jarraipen-plana elkarrekin onartzeko ahaleginak egingo dituela. Horretarako, bitartekariak bere eskura dituen tresnak eta bere gaitasunak erabili beharko ditu alderdiak konbentzitzeko; besteak beste, hizkuntza, enpatia, asertibitatea eta emozio-kontrolen bitartez.<sup>76</sup>

Bestalde, bitartekaritza bideokonferentziaren bitartez egingo da edota bide elektronikoko edo digital baten bitartez<sup>77</sup>. Horren aurrean, uste da bitarteko digitalen bidez egindako bitartekaritza bat ez dela praktikoena egoera horietan. Bitartekaritzaren prozedura osoa edo zati bat aurrez aurre egiteko aukera utzi izanak abantaila handiak ekarriko zituelarik. Jakin badakigu Konkurtso Legearen Testu Bateginak digitalizazioa bultzatzen duela eremu horretan, baina akordio konplexu bat lortzeko positiboa izan litekeen presentzialtasunari atea irekita uztea. Eta ez hori bakarrik, 10 egun

---

<sup>75</sup> VELA PÉREZ, J., El procedimiento especial de microempresas, *Anuario de Derecho Concursal*, 58, 2022, 506 orr.

<sup>76</sup> GALEOTE MUÑOZ, M., La negociación en el procedimiento especial para microempresas, *Anuario de derecho concursal*, 60, 2023, 92 orr.

<sup>77</sup> VELA PÉREZ, J. *op.cit.* 506 orr.

bitartekaritzaren emaitzak lortzeko epeari buruz, epe hori, argi eta garbi, ez da nahikoa, eta epe luzeago batek ez du kalterik eragingo lortu nahi den emaitzarekiko. Izan ere, epe horretan konplexutasun handia duen akordio bat lortzea bideraezina da.<sup>78</sup>

Beraz, ikusi daiteke artikulua bakar honetan (KLTB 702. art.) arautzen diren baldintzak airean daudela eta kalteak soilik ekar ditzakeela bitartekaritza eraginkor bat egikaritzarako garaian. Ondorioz, kaudimengabeziari aurre egiteko irtenbide eta aukera paregabe bat galtzen da.

Hau horrela, bitartekaritza-prozeduraren eta konkurtso-bitartekariaren instituzioa aztertzen badira, idealki, esan daiteke prozedura perfektua dela kaudimengabezia-egoeran dauden mikroenpresen kasurako. Baina, berriz ere, legeak horri buruz egiten duen erregulazioak eta berregituratze-aditua den adituari etengabe egiten zaizkion igorpenen ondorioz, ilundu egiten da giltzarri izan daitekeen figura bat. Eta ez hori bakarrik, legeak salbuespen bat aurreikusten du konkurtso-bitartekari gisa jardun ahal izateko, eta hori gertatzen da zordunak konkurtso-bitartekari izendatzeko eskaera zuzendu dion notarioak hala jardutea erabakitzen duenean. Aukera hori prozesuari arintasun handiagoa emateko asmo gisa interpreta daiteke, baina tamalez, bitartekariaren figura are gehiago iluntzen du eta eragozpen gehiago dakarzkola uste da.<sup>79</sup>

Konkurtso-bitartekariaren figura, aditu batzuen ustez, berregituratze-aditua denak ordeztuko du, zeinak zordunaren eta hartzekodunen artean ere egon bailiteke, negoziazioak burutzen bestek beste. Ezin dugu ahaztu bitartekariaren eginkizuna bitartekari-lana egitea dela, eta berregituratze-aditua, berriz, bitartekari-lana egitea eta beste eginkizun batzuk betetzea. Gainera, bakoitzak esku har dezakeen unea ez da berdina; bitartekariak, prozedura berezia irekitzen denetik bozketa-epea amaitzen den arte esku har dezake; berregituratze-adituak aldiz, prozedura berezia hasteko eskaeraren aurreko negoziazio-fasetik ere esku har dezake, bitartekariak ezin baitu horretan esku hartu. Arrazoi horiek guztiak direla eta, aditu hauen ustetan bitartekariaren eginkizuna ilunduta gera daitekeela uste da. Konklusio gisa eta irtenbide bezala zera esaten da,

---

<sup>78</sup> GALEOTE MUÑOZ, M., La negociación en el procedimiento ..., *op.cit.* 95 orr.

<sup>79</sup> CABANAS TREJO, R. eta RIVAS RUIZ, A., *op.cit.* 104-107. orr.

legean berregituraketa-aditua soilik aipatuta balioko zukeela arazo honi aurre egiteko, hori bai, gatazkak konpontzeko ordezko mekanismoetako prestakuntza-eskakizuna indartuz (hau da, bitartekaritza formazioa izanez), negoziazioan laguntzeko lanak egiteko, edo, are gehiago, bitartekaritza-lanak egin behar dituenenak<sup>80</sup>.

Azkenik, aipatzeko da ere bitartekaritza gatazkak konpontzeko mekanismo gisa ez ezik, sarean gatazkak konpontzeko mekanismo egokienetako bat ere badela. Gero eta gehiago hitz egiten da eztabaida telematikoetaz eta ODR-*Online Dispute Resolution*<sup>81</sup>, gatazkak *online* konpontzeko mekanismoetaz. Izan ere, erabiltzen diren transakzioei ematen dieten azkartasunak eta tartean diren alderdien artean eragiten duten kostu ekonomiko eta pertsonal txikiagoak funtsezko abantailak ekartzen dituzte, hala nola, bitartekaritzak dakartzan abantaila horiek sareko gatazkak konpontzeko mekanismo potentziala dela erakusten dute. Hortaz, esan daiteke bitartekaritza izango dela etorkizunean gehien erabiliko den tresna bat, aipatu diren abantailak direla eta.<sup>82</sup>

### 3.2.2. Berregituratze-adituaren figura

Aitortu beharra dago mikroenpresak direla gehiegizko zorpetzea eta kaudimengabezia gainditzeko arazo handienak dituzten enpresak.<sup>83</sup> Horregatik, 2019/1023/EB Zuzentarauak adierazten duen moduan, kaudimengabezia-zuzenbide eraginkorra behar da, eta bereziki, berregituratze-zuzenbidea, egitura aldetik eta operatiboki bideragarriak diren enpresei eusteko aukera emango diona, haien pasiboak

---

<sup>80</sup> *Ibid.* 94. orr.

<sup>81</sup> OSNA, G. Acceso a la justicia, cultura y *online dispute resolution*. *Derecho PUCP*, 83, 2019, 16-24 orr.

<sup>82</sup> HINOJOSA SEGOVIA, R., *Sistemas de solución extrajurisdiccional de conflictos*, Ramón Areces/CERASA, Madril, 2006, 63. orr.

<sup>83</sup> Ik. Ley 18/2022, de 28 de septiembre, de creación y crecimiento de empresas, *Preámbulo*, I atala, 31 orr.: “*Los estudios académicos alertan del riesgo que supone la falta de liquidez para las pequeñas empresas: Cuanto más pequeña es su estructura, más sensibles se muestran a los problemas económicos y financieros, lo que las condena, en muchos casos, a su desaparición. Un menor tamaño se traduce en menor capacidad para financiarse y para resistir tensiones de tesorería; por tanto, los efectos de la morosidad se hacen más evidentes para las pequeñas empresas que para las empresas más grandes. La incertidumbre que genera esta situación también condiciona su capacidad de crecimiento y de generar empleo estable y de calidad*”.

eta egitura operatiboa berregituratu eta lanpostuak galtzea saihestu ahal izateko<sup>84</sup>. Beraz, helburu horiek lortzeko asmoarekin berregituratze-plana delakoaren figura sortu zen, judizioz kanpoko negoziazio-mekanismo bat dena. Honekin lortu nahi dena zera da, sustatzea konkurtsoa eskatu beharra saihestuko duten akordioak lortzea.<sup>85</sup>

Mugimendu honekin bat, aditu merkantilista askok beste mugimendu baten beharra eskatzen dute, hori, “alerta goiztiarreko kultura”<sup>86</sup> esaten zaiona sustatzean datza. Hau da, prebentziozko berregituraketa-planak eraginkortasunez aplikatzeko, zordunak jarrera proaktiboa izan behar du, bereziki, kaudimengabeziaren lehen zantzuen aurrean goiz esku hartuz. Honen arrazoia zeran datza, kaudimengabeziaren hasierako faseetan lortzen dute berregituraketa-neurriek eraginkortasunik handiena enpresa-bideragarritasuna babesteko, eta kaudimengabezia saihesteko. Horrek, azken batean, enpresaren balioa maximizatzea dakar, eta ondorioz, baita hartzekodunen interesa ere.

Europar Batasunaren Zuzentarau horren bitartez, aditu-figura berri bat sartu izan zen, *Practitioner in the field of restructuring* delakoa, gaztelaniazko bertsioan “berregituratze-arloko administratzaile” gisa itzulia izan zena, eta azkenik, KLTBaren erreformara “berregituratze-aditua” izenarekin igaro dena (*experto en reestructuración*).<sup>87</sup>

Zalantzarik gabe, ikusi da berregituratze-aditua funtsezko oinarria izan dela Zuzentaruaren eskeman, eta, hain zuzen ere, espainiar estatuan barneratu zenetik

---

<sup>84</sup> Hauek dira 2019/1023/EB Zuzentaruak jasotzen dituen printzipioak. Ik. Sarrerako 2 Zenb.: “*Los marcos de reestructuración preventiva deben permitir, ante todo, la reestructuración efectiva de los deudores en un momento temprano y evitar la insolvencia, limitando así la liquidación innecesaria de empresas viables. Tales marcos deben ayudar a evitar la pérdida de puestos de trabajo y de conocimientos y competencias y maximizar el valor total para los acreedores (en comparación con lo que habrían recibido en caso de liquidación de los activos de la empresa o en caso de aplicarse la mejor solución alternativa en ausencia de un plan de reestructuración), así como para los propietarios y para la economía en su conjunto*”.

<sup>85</sup> PAVÓN NEIRA, C., *Mecanismos preconcursales: precurso y planes de reestructuración*, Aferre, Bartzelona, 2023, 40. orr.

<sup>86</sup> GÓMEZ ASENSIO, C., La efectividad del plan de continuación para microempresas, *Revista General de Insolvencias & Reestructuraciones*, 8, 2022, 142-146 orr.

<sup>87</sup> YANES YANES, P., El “experto en la reestructuración”, *Revista Canaria de Administración Pública*, 1, 2023, 149 orr.

eztabaida gehien sortu izan dituen gaietako bat ere. Gatazka handienetako bat aditu honi eskatu behar zaizkion baldintzei ingurukoa izan da. Egia da, doktrinaren alderdi batek modu interesatuan ikusarazi nahi izan duela ekonomia-arloko norbait baino ez dela izan behar. Baina 2019/1023/EB Zuzentarauaren 87. artikulua kontuan hartutako<sup>88</sup> interpretaziotik ondorioztatzen da berregituraketa aditua gutxienez konkurtso-administratzaile diren profesionalak barne hartu behar dituen kontzeptua dela. KLTB lege berriak jaso duen definiziora etorrira (KLTB 674. art.), berriz, arauketa oso azalekoa dirudi. Ulertu daiteke legegilea gai hau sakon aztertzerik nahi izango ez balu bezala aritu dela eta nolabait konpondu gabe geratu dela. Ondorioz, legeak nahiko zabalik uzten du eginkizun horiek bete ahal izango dituzten profesionalen aukera.<sup>89</sup>

Figura honen definizioari dagokionez, Zuzentarauak berregituratze-aditutzat jotzen du agintaritza judizial edo administratibo batek izendatutako pertsona edo organo oro, aurre-konkurtsuan eginkizun jakin batzuk betetzeko<sup>90</sup>. KLTB legearen erreforman berriz, pertsona natural edo juridikoa aipatzen da, berregituratze-arloan ezagutza espezializatuak eta esperientzia dituen (KLTB 674 art.<sup>91</sup>).

---

<sup>88</sup> Directiva 2019/1023, considerado 87, *Los Estados miembros deben velar asimismo por que los administradores en materia de reestructuración, insolvencia y exoneración de deudas, que sean nombrados por las autoridades judiciales o administrativas (en lo sucesivo, «administradores concursales»): estén adecuadamente formados; sean nombrados de manera transparente teniendo debidamente en cuenta la necesidad de garantizar la eficiencia de los procedimientos; sean supervisados cuando realicen sus funciones; y ejerzan sus funciones con integridad. Es importante que los administradores concursales respeten las normas de dichas funciones, como la obtención de seguros para la responsabilidad profesional. La formación y titulación adecuadas y los conocimientos especializados con los que deben contar los administradores concursales también pueden adquirirse en el ejercicio de su profesión. Los Estados miembros no deben estar obligados a facilitar directamente la formación necesaria, pero esta podría impartirse, por ejemplo, a través de asociaciones profesionales u otros organismos. Los «administradores concursales» en la definición del Reglamento (UE) 2015/848 deben quedar incluidos en el ámbito de aplicación de la presente Directiva.*

<sup>89</sup> MARTÍNEZ SANZ, F., Aproximación al experto en reestructuraciones en el Proyecto de Ley de reforma del Texto refundido de la Ley Concursal, *Revista General de Insolvencias & Reestructuraciones*, 6, 2022, 26 orr.

<sup>90</sup> Directiva 2019/1023, artículo 2.1.12), «administrador en materia de reestructuración»: *toda persona u órgano nombrado por una autoridad judicial o administrativa para desempeñar, en particular, una o más de las siguientes funciones: (...)*

<sup>91</sup> LC artículo 674, *El nombramiento de experto deberá recaer en la persona natural o jurídica, española o extranjera, que tenga los conocimientos especializados, jurídicos, financieros y empresariales, así como experiencia en materia de reestructuraciones o que acredite cumplir los requisitos para ser administrador concursal conforme a esta ley. Cuando la reestructuración que se pretende conseguir tuviera particularidades, bien por el sector en el que opera el deudor, bien por las dimensiones o la complejidad del activo o del pasivo, bien por la existencia de*

Argi dago araudian kontzeptu ezberdinak jasotzen direla berregituratze-aditua eskatzen denerako, eta ez hori bakarrik, baita baldintza subjektibo ezberdinak ere. Honen aurrean, ezegonkortasun handia dagoela azpimarratu izan dute aditu batzuk, izan ere, askoren ustetan legedian ez da nahikoa baldintza ezartzen, motz gelditzen delarik hainbat kasutan. Aitzitik, faltan ikusi da negoziazio eta bitartekaritza ezagutzak izatearen baldintza sartu ez izana, ezin baita ahaztu fase honen helburua akordio bat bilatzea dela<sup>92</sup>.

Hemen, azpimarratu behar da berregituratze-adituak eskainiko duen negoziaketarako laguntzaren funtzio hori, izan ere, laguntza hori bereziki garrantzitsua ikusten da akordio bat lortzeko helburua dela eta. Negoziazioan laguntza hori emateko, berregituratze-aditu honek negoziazio eta bitartekaritza metodologiak menderatu behar ditu doktrinaren usteetan<sup>93</sup>. Horregatik, motz ikusten da legedian berregituratze-aditu honi ez exijitu izana negoziazio eta bitartekaritza formazioa baldintza gisa.

Honi helduz, “negoziazioan laguntza” ematearen funtzioan, jarduera ezberdinak ulertu daitezke, izan ere, ez baita berdina izango laguntza mailaren edo adituak hartzen duen konpromezuaren arabera izango duen posizioa. Hau da, laguntza handia eskaintzen duen unean bitartekari figura betetzen ari dela ulertu daiteke eta laguntza gutxi eskaintzen duenean berriz, prozedura bultzatzaile simple gisa ikusi daiteke.

Hortaz, askok, faltan botatzen dute aditu honekiko negoziaketa eta bitartekaritza prestakuntza baldintza izatearen beharrezkotasuna. Ezinbestekotzat ikusten dute gaitasun hauek menderatuta izatea, batik bat, bi alderdiak gerturatzeko eta beraien artean komunikatu ahal izateko, erlazio txarra egon daitekeelako tartean edota ez daudelako malgutzeko intentzioaren aurrean. Ondorioz, esan daiteke soilik kaudimengabezia-egoeretara eta berregituratzetara egokitutako negoziazio-metodologia menderatzen duen berregituratze- adituak izango duela arrakasta.

---

*elementos transfronterizos, estas particularidades deberán ser tenidas en cuenta para el nombramiento del experto.*

<sup>92</sup> GALEOTE MUÑOZ, M., La negociación en el procedimiento ..., *op. cit.* 88 orr.

<sup>93</sup> *Ibid.* 89-90 orr.

Bestalde, KLTB 690.3 artikuluan arautzen da zordunak eskatuta irekitako negoziazio-aldian ez dela nahitaezkoa izango aditua izendatzea.<sup>94</sup> Kasu honetan, artikulua hau lege berdineko 586 artikuluekin alderatuz gero, ez da argitzen noiz ez den nahitaezkoa aditua izendatzea. Gainera, soilik negoziazio epea zordunak ireki dezakeen zerbait izanik (KLTB 690.1 art.), hartzekodunek ezin dutenez hasi, ulertu daiteke orokorrean ez dela nahitaezkoa izango aditu honen izendapena.<sup>95</sup>

Hau ikusirik, figura hau mikroenpresentzako prozedura bereziaren eremura ekarriz, III. Liburura, kontuan hartu behar da bertan berregituratze-aditua *ad hoc* edo puntualki izendatzeko aukera ere ematen dela (KLTB 704 art.). Berregituratzetan aditua den pertsonak mikroenpresen aurre-konkurtsuan jardun ahal izango du, baina hautatutako prozedura berezia enpresaren jarraipenekoaren denean soilik, eta ez likidaziokoa. Hau da, enpresaren jarraipeneko prozedura berezia prozedura laburtu bat da, eta bertan, zordunak eta haren hartzekodunek zordunaren krisiari irtenbide adostu bat ematen saiatzen dira. Epealdi horretan, zordunak eta haren hartzekodunek askatasuna dute enpresa sendatzeko, denboran zehar iraun duen bideragarritasun-egoerara itzultzeko beharrezkoak diren neurriekin.<sup>96</sup> Azkenean, mikroenpresentzat prozedura hau berregituratze-planaren eta konkurtsu-hitzarmenaren nahasketa bat izango da.<sup>97</sup>

Hortaz, enpresaren jarraipen-prozedura berezian, berregituratze-adituaren funtzioen konfigurazioa eta zereginak desberdinak dira araubide orokor komunean

---

<sup>94</sup> LC artículo 690.3.II., (...) *No será preceptivo el nombramiento de experto en el periodo de negociaciones abierto a solicitud del deudor.*

<sup>95</sup> SANJUAN Y MUÑOZ, E., *Reestructuración y liquidación de microempresas en crisis. El procedimiento especial para microempresas y su régimen transitorio*, Tirant lo Blanch, Balentzia, 2022, 161 orr.

<sup>96</sup> MORALEJO MENÉNDEZ, I., Ley 16/2022, de 5 de septiembre, de reforma del texto refundido de la Ley Concursal, aprobado por el rd Legislativo 1/2020, de 5 de mayo, para la transposición de la Directiva (UE) 2019/1023, del Parlamento Europeo y del Consejo (Directiva sobre reestructuración y solvencia)[BOE-A-2022-14580], *Reforma de la Ley Concursal: ordenación del concurso, precurso y procedimientos especiales para microempresas. AIS: Ars Iuris Salmanticensis*, 11, 2023, 237. orr.

<sup>97</sup> PAVÓN NEIRA, C. *op.cit.* 143 eta 144 orr.



aztertzen direnarekin alderatuta, mikroenpresa motaren beharretara egokituz<sup>98</sup>. Hau da, araubide orokorraren babesean (KLTB 679 art.), adituak bere gain hartzen du zordunari eta hartzekodunei negoziazioetan eta berregituratze-plana egiten laguntzeko eginkizuna, eta inola ere ezin ditu gainbegiratu, esku hartu edo kontrolatu zordunaren administrazio- eta ondare-xedapeneko ahalmenak. Aldiz, mikroenpresen jarraipen-prozedura berezian, nabarmen zabaltzen da funtzioen multzoa (KLTB 704. art.). Nahiz eta egoera ez izan ohiko konkurtsoan bezalakoa, mikroenpresaren jarraipenerako prozedura berezian posible da, hartzekodunek hala eskatuta, epaileak mugatu ahal izatea zordunaren administrazio- eta xedatze-ahalmenak (KLTB 703. artikulua). Hori dela eta, adituak eginkizun berriak hartu ahal izango ditu bere gain, enpresaren jarraipenaren intereserako, funtzio horiek berregituratze-araubidean ez baditu ere.

Berregituratze-adituak mikroenpresen prozedura berezian funtzio gehiago izatearen aurreikuspena egiten da, eta hortaz, bere gain hartuko du:

- a. Zordunaren eta hartzekodunen negoziazioetan bi alderdien arteko bitartekaritza-ahalmenak.
- b. Iritziak emateko ahalmen teknikoak.
- c. Enpresaren jarraipen-plana egiten laguntzeko eginkizun orokorra.
- d. Eta prozedura berezian horietatik haratago eskatzen dioten funtzioak: adituak bere gain hartu ahal izango ditu esku hartzeko eginkizunak edo ordezkapen-eginkizunak, zordunaren administrazio- eta xedatze-ahalmenei dagokienez.

Ondorioz, mikroenpresentzako prozedura berezian eska eta lor daiteke zordunaren ahalmenaren mugaketa edo ordezkapena, jarraitzeko prozedura soil baten aurrean gaudenean.<sup>99</sup> Eta baieztapen honetatik ulertzen da adituak bere funtzioekiko balio-aniztasuna duela, kontuan hartuta zein prozedura motaren aurrean dagoen,

---

<sup>98</sup> RIVAS URBINA, R., Los planes de reestructuración en el nuevo régimen de la insolvencia español. *Revista Boliviana de Derecho*, 35, 2023, 655 orr.

<sup>99</sup> MARTÍNEZ SANZ, F., *op.cit.*, 31. orr.

araubide orokorreko aurre-konkurto batean edo enpresaren jarraipen-prozeduraren modalitateko mikroenpresen aurre-konkurto batean.<sup>100</sup>

Hau esanda, badirudi aditu berri baten aurrean gaudela, berregituratze-aditu orokorraz bestelakoa dena eta negoziatzaile irudi zehaztu gabea daukana. Aditu berri honek, aurretik ikusitako arazoak kontuan izanik, ezjakintasun eta misterio handia ekartzen du prozedura berezira, bere kontzeptua eta funtzioak iluntzen direlarik. Izan ere, abaniko ezberdinetako izaeraz jantzi daitekeen profesional bat dela nabari da eta horrek mikroenpresa zordunarentzat nahasmen handia ekar dezake beregana jotzerako garaian. Eta ez dakar soilik nahasmena zordunarentzat, baizik eta doktrinaren aditu batzuegan ere, egoera kontuan izanik, tasatzaile aditu baten aurrean egon gaitzekela ere uste da.<sup>101</sup> Horregatik, zalantza asko sortzen dira oraindik ere berregituratze-aditu honen figuraren inguruan.

### **3.2.3. *Pre-Pack* eremuan eskaintzak jasotzen dituen adituaren mendekotasuna**

*Pre-pack* delakoa konkurto-aurreko tresna bat da eta enpresa baten ekoizpen-unitatearen salmenta arintzea du helburu, negozioak kaudimengabezia-deklarazioaren ondorioz baliorik gal ez dezan. Konkurto Legearen arabera, enpresa baten ekoizpen-unitatea funtsezko jarduera ekonomiko bat edo jarduera ekonomiko osagarri bat gauzatzeko antolatutako bitartekoen multzoa da, eta baliabide horiek autonomia eta funtzionaltasun nahikoa izan behar dute jarduera garatzeko. Hortaz, tresna honekin zera lortu nahi da, konkurto-prozesuen berezko epe luzeegiek krisialdian dagoen enpresari ez eragitea.<sup>102</sup> *Pre-pack* beraz, prebentziozko berregituratze-neurri bat da (konkurtoa deklaratu aurretiazkoa), ekoizpen-unitatea ahalik eta lasterren saltzeko helburuarekin sortua.

Jatorriari dagokionez, *Pre-pack*aren izapidetzea Espainian probintzia ezberdinetako merkataritzako epaitegiek barneratu izan dute, protokolo, ebazpen

---

<sup>100</sup> YANES YANES, P., *op.cit.*, 154, 155 eta 175. orr.

<sup>101</sup> MARTÍNEZ SANZ, F., *op.cit.* 32 eta 33 orr.

<sup>102</sup> ALMENDROS, A., *Prepack* concursal: qué es y cuáles son sus ventajas para tu empresa si pasa por una crisis de insolvencia, Antonio Almendros Abogados, 30 de marzo de 2023.

judizial eta hainbat giden bitartez, tresna hau errealitate bat bihurtuz estatuan. Bartzelonan izan zen lehenengo aldiz *pre-pack*aren materia ukitu zuten probintzia, 2021ean lehenengo protokoloa aplikatu zutelarik.<sup>103</sup> Bertan, ulertzen zuten tresna honen erabilera KLTB 583. artikulua eta hurrengoetan<sup>104</sup> araututako negoziazio irekiarekin hasiko zela eta bestalde, izendatzen den aditu independenteak egindako operazioak izapidetuko zirela KLTB 530. artikulua eta hurrengo arabera<sup>105</sup>. Beste probintziek ere berdin jarraitu zuten, esaterako, Balear Irletan 2021eko apirilean merkataritza epaitegiek ere protokolo batez hornitu ziren<sup>106</sup>, helburu gisa gehitu zutelarik konkurtso-administratzailearen izendapena prekonkurtso fase batera aurreratzea.

Azkenik esan, 2019/1023 Zuzentarauak<sup>107</sup>, berregituraketa-esparruei buruzkoak, gure ordenamendu juridikora *pre-pack* figura ekarri izan duela bere osotasunean. Legez positibizatu egin zen Konkurtso Legearen Testu Bateginaren erreforman behintzat, honen oinarria KLTB 224 bis artikuluan<sup>108</sup> aurkituz. Bertan ekoizpen-unitate bat edo batzuk eskuratzeko eskaintzarekin batera aurkezten da konkurtso-eskaera. Esan daiteke, aurrerapen eta transposizio juridiko guzti hauek araudi berritzailea ekarri dutela gurera.<sup>109</sup>

---

<sup>103</sup> ILLUSTRE COLLEGI DE L'ADVOCACÍA DE BARCELONA, Protocolo *Pre-pack* concursal: directrices para el procedimiento de tramitación, de los Juzgados Mercantiles de Barcelona, de 20 de enero de 2021.

<sup>104</sup> LC artículo 583, *De los presupuestos del precurso*.

<sup>105</sup> LC artículo 530, *Solicitud de concurso con presentación de plan de liquidación (suprimido)*.

<sup>106</sup> ASOCIACIÓN ESPAÑOLA DE MUJERES PROFESIONALES DE LA INSOLVENCIA. Pleno de la Sala de Gobierno del Tribunal Superior de Justicia de las Islas Baleares de 5 de mayo de 2021, por el que se adopta el Protocolo Pre-Pack Concursal Baleares.

<sup>107</sup> Directiva (UE) 2019/1023 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 20 de junio de 2019, sobre marcos de reestructuración preventiva, exoneración de deudas e inhabilitaciones, y sobre medidas para aumentar la eficiencia de los procedimientos de reestructuración, insolvencia y exoneración de deudas, y por la que se modifica la Directiva (UE) 2017/1132 (Directiva sobre reestructuración e insolvencia).

<sup>108</sup> LC artículo 224 bis 1, *El deudor puede presentar, junto con la solicitud de declaración de concurso, una propuesta escrita vinculante de acreedor o de tercero para la adquisición de una o varias unidades productivas*.

<sup>109</sup> RIVAS URBINA, R., Enajenación de la unidad productiva ..., *op.cit*, 138. orr.

Mikroenpresen prozedura bereziari dagokionez, ikusiko dugu figura berri honek sortzen dituen gatazkak. Jada aipatu denez, abokatu-laguntza azkenean ez da desagertu prozedura honetan, baizik eta derrigorrezkoa bihurtu da, nahiz eta hasiera batean helburua zordunek beraien kabuz lana egitea izan, kostuak murrizteko nahiarekin. Laguntza hori gabe, esan behar da, zordunak ondasunen balorazio egokia eta likidazio-lan egokia bere kabuz soilik egingo balitu, kalte ekonomiko are handiagoa ekarriko lituzkeela, aditu baten laguntzarekin baino.

Nahiz eta likidazio-planaren izapidetzea aukerakoa izan, ekoizpen-unitatea besterentzen bada, nahitaezkoa izango da KLBT 707.3 artikulua<sup>110</sup> kontuan izanik, konkurtso-administratzaile baten edo aditu baten balorazioa egotea (zordunak “begirale” edo “monitore” baten laguntzarekin eskuratzailerak bilatu eta salmenta prestatuko du, kaudimengabezia aitortu baino lehenagoko fase batean<sup>111</sup>). Zordunak artikuluan eskatzen den oro bere kabuz eramateak zailtasunak ekarri ditzake, beraz, menpekotasun bat edo behar bat bezala ikusi daiteke adituaren figura aurretiazko likidazio plana aurrera eramateko. Izan ere, zordunak artikulua horretan aipatzen diren betebeharrak guztiak bere kabuz betetzea ezinezkoa izango da kasu gehienetan.

Hari horri helduz, hortaz, adituaren beharra ikusi daiteke likidazio prozesu berezian enpresa eskualdatze edo ekoizpen-unitatea saltzen denerako. Adituaren garrantzia ulertu daiteke ikuspuntu objektibo batetik, izan ere, prozesu honetan, konkurtso-egoitzan enpresa eskualdatzeak zordunari bere pasiboaren zati handi bat askatzea eta enpresa-jarduerarekin jarraitzea ahalbidetzen dio, horrela produkzio-sareari eusten lagunduz. Beraz, pauso handi bat ematen den prozesua da.

---

<sup>110</sup> LC artículo 707.3, *El plan de liquidación deberá exponer, motivadamente, los tiempos y la forma previstos para la liquidación del activo, de manera individualizada para cada bien o categoría de bienes genéricos. Siempre que sea posible, deberá preverse la enajenación unitaria del establecimiento o del conjunto de unidades productivas de la masa activa. A estos efectos, el plan incluirá una valoración de la empresa o de las unidades productivas realizada por un administrador concursal o, en caso de que no hubiera sido nombrado, por un experto designado al efecto de acuerdo con lo dispuesto en el capítulo II de este título III. El plan de liquidación se comunicará por medios electrónicos mediante formulario normalizado por el deudor o por el administrador concursal a los acreedores dentro del mismo día o el primer día hábil siguiente, con copia al letrado de la Administración de Justicia.*

<sup>111</sup> PULGAR EZQUERRA, J. Rescisorias concursales y *prepack* en la propuesta de segunda directiva de insolvencia: su transposición al derecho español, *Revista de Derecho Bancario y Bursátil*, 171, 2023, 29 orr.

Bestalde, legegileak oso ondo sartu du KLTB 710. artikuluan<sup>112</sup> mikroenpresaren egoitzan enpresa edo ekoizpen-unitatea eskualdatzeko aukera hori. Erreformatik KLTB 710. artikularen 2. apartatua sartzen du 224 *bis* artikulutik 224 *quater* artikulura igortzeko aukerak. Kasu horretan, enpresa edo ekoizpen-unitatea eskuratzeko eskaintza likidazio-prozedura bereziaren eskaerarekin batera aurkeztera ahalbidetzen du, eta prozedura horrek aipatutako artikuluetako arauak bete beharko ditu. Azken batean, legegileak *pre-pack* prozedura bat egiteko aukera ezarri du mikroenpresaren eremuan ere. Arauketa hau positiboa dela ulertzen dute aditu askok, baina aurretik aipatu den adituaren beharra prozedura guzti hau ahalbidetzeko oraindik ere ziurgabetasuna sortzen du.

Hau esanda, praktikan, mikroenpresarioek figura berri baten ezagutza izatearen probabilitatea baxua izaten da, eta batzuetan ezezaguna ere. Beraz, enpresari hauek *pre-pack* figura ezagutzea beraien kabuz zaila den zerbait da.

Ildo horretan, lehenengo pausoa ez da konkurtsoaren eskaerarekin hasten, baizik eta adituak eskaintzak biltzeko egindako eskaerarekin, behin eskaintza lortuta, konkurtso eskaerarekin batera aurkez dadin (honekin ulertzen da, *pre-pack* aditua den begirale hau izango dela aktore printzipala *pre-pack* fasearen preparazioa gauzatzeko<sup>113</sup>). Konkurtsoa deklaratu ondoren, epaileak ezeztatu edo berretsi egiten du adituaren izendapena, eta hark hartzen du bere gain konkurtso-administratzailearen izaera (Etorkizuneko konkurtso-administratzailea<sup>114</sup>), eta haren ardura izango da ebaluazio-lanak, ondasunen eta zorren inbentarioa, txostenak edo likidazio-plana egitea. Beraz, erreformaren 710.2 artikuluan xedatutakoaren arabera,<sup>115</sup> “enpresa edo ekoizpen-unitatea eskuratzeko eskaintza bat aurkeztu ahal izateko likidazio-prozedura bereziaren eskaerarekin batera”, praktikan beharrezkoa da aldeztu aurretik aditua izendatzea eskaintza horiek jasotzeko.

---

<sup>112</sup> LC artículo 710, *Transmisión de la empresa o de sus unidades productivas*.

<sup>113</sup> PULGAR EZQUERRA, J. *op.cit.* 33.orr.

<sup>114</sup> *Ibid.* 33. orr.

<sup>115</sup> LC artículo 710.2, *También podrá presentarse una oferta de adquisición de empresa o de unidad productiva con la solicitud de procedimiento especial de liquidación de acuerdo con las reglas de los artículos 224 bis a 224 quater*.

Aitzitik, KLTB 710. artikuluko 2. apartatuak igortzen duen *pre-pack* bidez gauzatzeko aukerari buruz, bertan ezarritako baldintzak, aditua aukeratzeko hautazko izaerarekin talka egingo luke. Gainera, mikroenpresariak eskaintzak gainditzeko aditua izendatzea eskatzen duenean, aditu hori nahitaez konkurtso-administratzailea bihurtuko da, epaileak errebokatzen ez badu. Beraz, zordunak aditu hau prozeduran sartzen duen unean horrekiko lotura izango du prozedura amaitu arte, kostuak handituko direlarik.<sup>116</sup>

Beraz, mikroenpresentzako prozedura bereziaren barruan *pre-pack* aplikatzeak zera eskatzen du<sup>117</sup>:

- a. Zordun mikroenpresariak *pre-pack* prozeduraren berri izatea.
- b. Zordunak adituaren eta ondorengo konkurtso-administratzailearen zerbitzu-sarien ordainketari aurre egiteko gaitasun ekonomikoa izatea.
- c. Zordunak profesional horren partaidetza bere gain hartu beharko duela modu behartuan eta ez boluntarioan.

Ondorioz, mikroenpresentzat ezin da *pre-pack administration* prozedurarik egin konkurtso-administratzaile bat izendatu gabe. Ildo horretan, konkurtso-administratzailea izendatzeari dagokionez, zordun mikroenpresak hautatzeko duen ahalmenari buruzko erregela orokorra indargabetu egiten da derrigortasun inplizituaren alde. Gainera, legegilearen ustez, ezinbesteko eginkizuna da eskaintzak biltzeko ardura duen adituaren lana, ondorioz, kostuak murriztearen helburua erori egiten da horrekin, eta beraz, zordun mikroenpresa batek *pre-pack* prozedura hautatzeko probabilitatea urria izango da.<sup>118</sup>

Azkenik, doktrinaren alde batek zera esaten jarraitzen du, Espainiako zuzenbidean egungo *pre-pack* figuraren lege-erregulazioak sistematika eta argitasun falta duela, eta batzuetan, elkarren kontrakoak izan daitezkeen aurreikuspenak arautzen dituela, hau izanik horietako bat. Horrek, praktikan, segurtasun juridikoaren aurkako nolabaiteko nahasketa eragiten du, eta zoritxarrez, legez araututako *pre-packa* ez dator

---

<sup>116</sup> RIVAS URBINA, R., Enajenación de la unidad productiva ..., *op.cit*, 136-138 orr.

<sup>117</sup> *Ibid.* 136-138 orr.

<sup>118</sup> *Ibid.*

bat gure merkataritza-arloko epaileek figura horretara egindako hurbilketa judizialarekin.<sup>119</sup>

#### 4. ONDORIOAK

Lan honetan zehar, Konkurtso Legearen III. Liburuko mikroenpresen prozedura bereziaren sorrera eta honek ekarri dituen modernizazioak aztertu dira. Hain zuzen ere, enpresa txiki hauen krisi-egoerari aurre egiteko mekanismo berrien eta profesional berrien esku-hartzea ikertu dira, teknologiaren inpaktua, enpleguari eusteko berregituratze goiztiarreko mekanismoen bideak aintzat izanik. Hortaz, ondorio batzuk atera dira erreforma honek ekarri dituen aldaketa hauen artetik.

Bat. Lanaren amaierara iritxirik, baieztatu daiteke araubide berezi bat sortzea III. Liburuko mikroenpresen konkurtsoaren eremuan, aukera ezin hobea izan dela gaur egungo mikroenpresen egoera ekonomiko zailari aurre egiteko. Baina, nahiz eta, prozedura berezian egin diren modernizazio-ahaleginak eta berrikuntzak erabat zentzu egokian izan, oraindik ere hobetu beharreko zerbait dira. Hori horrela, lan honetan bi eremu aztertu izan dira, alegia, digitalizazioa eta profesionalen beharra.

Bi. Esan behar da, digitalizazioaren txertatzea aurrerapen ikaragarria izan dela, berme handiak ekarri dituelako eta bizkortasuna lortu daitekelako prozesu judizialetan plataforma teknologiko eta formulario digitalen bitartez. Baina, tamalez, ikusi da berrikuntza goiztiarra eta prestakuntza urria izan duela tresna honek. Ardura handia eskatzen duen lana da eta gaur egun oinarri sendoak falta zaizkio.

Hiru. Ikertutako bigarren gai gatazkatsuari dagokionez, profesionalak prozedura hauetan parte hartzearen beharra kendu izanaren arrazoia izapidetze-kostuak murriztea izan da. Ulergarria da baina, digitalizazioarekin batera, baita kritika handia jasan duen erabakia ere. Kasu honetan, mikroenpresa-zordunaren figura ezagutzen joan den eran, argi ikusi da, zordunaren ezjakintasunaren aurrean adituaren laguntza ezinbestekoa dela, are gehiago mikroenpresen kasuan, bizkortasunean oinarritutako prozedura batean adituen aholkuak eta jarraibideak ezinbestekotzat ikusten dira eta.

---

<sup>119</sup> PULGAR EZQUERRA, J. *op.cit.* 41. orr.

Hala ere, adituena behar honek nolabaiteko ziurgabetasuna ekarri duela onartu beharra dago, izan ere, ikertutako figura hauek -bitartekariak, berregituratze-adituak eta *pre-pack* adituak- araubide nahasgarri eta ilun bat eragin baitute, hauengana jotzeko aukerak murriztuz.

Lau. Araubide berri eta konplexu honi aurre egiteko, hainbat irtenbide aurkitu behar direla eztaba daezina da. Hortaz, digitalizazioari aurre egiteko alternatiba gisa aipa daiteke batez ere prestakuntza ikastaroak sortzea, heziketa orokor bat eskainiz, mikroenpresei partikularki eta operadore juridiko orori, gaur egungo modernizazioaren beharrei aurre egiteko ezinbestekoa dena. Izan ere, pentsatzekoa da zaila izango dela sistema judizialean papera oinarritzko bitarteko gisa duen zeregina atzean uztea, epe laburrean behintzat.

Bost. Ez hori bakarrik, kaudimengabezia-prozedura berezien kostuei aurre egiteko mekanismo alternatiboak egon beharko lirateke eskuragarri, mikroenpresa-zordunak ezin baditu hori guztiei aurre egin. Adibidez, funts publikoen erabilera edo kaudimengabezia-prozeduren kostuak estaltzeko funts bat ezarri daiteke. Edota, kostuak murriztea lor daiteke, adituak kendu beharrean arantzelaren zenbatekoa murriztuz, hau da, profesionalen parte hartzea baztertu beharrean beraien tarifak murriztu, prozedura sinpleago hauetan.

Sei. Zailtasun nagusia da oreka aurkitzean mikroenpresentzako kaudimengabezia-prozedura sinplifikatu bat izatearen eta alderdi interesdun guztien eskubideak babestearen artean. Balantza hori lortzeko, estatuko hainbat erakundek elkarlanean jardun beharko lukete, esaterako, zerga-agintaritzekin, merkataritza-erregistroko bulegoekin, gobernu elektronikoko plataformekin, etab. helburu horiek lortzeko.

Azpimarratu behar da ere, “alerta goiztiarreko kultura” esaten zaiona sustatu behar dela, hau da, zordunaren jarrera proaktiboa eskatu eta bultzatu, bereziki, kaudimengabeziaren lehen zantzuen aurrean goiz jarduteko. Gure gizartearen kulturaren gaizki ikusita dago enpresak kaudimengabezia-egoeran egotea eta pentsaera hori baztertu beharreko zerbait da. Izan ere, arazoak ezkutatzek eta luzatzek kalteak besterik ez ditu ekartzen, eta berriz, esku-hartze goiztiarrak arazo guztiak lehenbailehen



bideratuko lituzke. Hortaz, zordunei arretaz jarduteko premiaz ohartarazi behar zaie, kaudimengabezia sartuta edo sartzeko zorian dauden mikroenpresek adituak kontratatzeke dituzten baliabide mugatuak kontuan hartuta. Ahalmen ekonomikoa duten bitartean adituengana jotzea eskatu behar da, alderdiak elkarrizketa eta konponbide estrajudizialak bilatzera bultzatzera eramanez, mikroenpresaren funtzionamendu onak jarraitu dezan.

Azken finean, nahiz eta oso berrikuntza gogorra izan eta ondorio esanguratsuak ekarri, esan daiteke beharrezko erreforma bat izan dela, orain edo beranduago aurrera atera beharreko erabaki bat. Legegileak araudi berri honekin lortu nahi izan dituen helburuak argi ikusi daitezke, mikroenpresen kaudimengabezia-prozesuak azkarrago eta merkeago izapidetu nahi izana eta bide horretatik jarraitzea besterik ez zaio falta, arauak hobetuz eta ikuspuntu berriak kontuan izanez.

## BIBLIOGRAFIA

BERMEJO, N., FERNÁNDEZ SEIJO, J. M., MARTÍN MARTÍN, A., ARRUÑADA, B. eta DE LA FUENTE, A., Comentarios al proyecto de reforma concursal, *Fedea Policy Paper*, 3, 2022, <https://documentos.fedea.net/pubs/fpp/2022/02/FPP2022-03.pdf>

CABANAS TREJO, R. eta RIVAS RUIZ, A., *El acuerdo extrajudicial de pagos en el Texto Refundido de la Ley Concursal*, Aferre, Bartzelona, 2020.  
<https://www.aferreeditor.com/materias/derecho-mercantil-de-sociedades-y-de-competencia/derecho-concursal/>

DIDEA, I. eta LLIE, D.M., "A new proposal for an EU Directive and a new challenge to harmonize insolvency law rules. Creating a special insolvency regimen for SMEs - A “key” item on the EU and UNCITRAL agenda", *Istorie, Cultura, Cetatenie in Uniunea Europeana*, 391-409, <https://www.ceeol.com/content-files/document-1258436.pdf>

FLOYER ACLAND, A., *Cómo utilizar la mediación para resolver conflictos en las organizaciones*, Paidós, Bartzelona, 1993.

GALEOTE MUÑOZ, M., La negociación en el procedimiento especial para microempresas, *Anuario de derecho concursal*, 60, 2023, 79-97.

GALEOTE MUÑOZ, M., Mediación Concursal. El acuerdo extrajudicial de pagos y el mediador concursal, *Working Paper IE Law School*, AJ8-226, 2015, [Mediación Concursal El acuerdo extrajudicial de pagos y el mediador concursal \(Insolvency Mediation. Voluntary Payment Settlement and the Insolvency Mediator\) by Pilar Galeote :: SSRN](#)

GÓMEZ ASENSIO, C., La efectividad del plan de continuación para microempresas, *Revista General de Insolvencias & Reestructuraciones*, 8, 2022, 139-155.

HINOJOSA SEGOVIA, R., *Sistemas de solución extrajurisdiccional de conflictos*, Ramón Areces/CERASA, Madril, 2006.

MARTÍNEZ SANZ, F., Aproximación al experto en reestructuraciones en el Proyecto de Ley de reforma del Texto refundido de la Ley Concursal, *Revista General de Insolvencias & Reestructuraciones*, 6, 2022, 17-43.

MONEREO PÉREZ, J. L.; RODRÍGUEZ ESCANCIANO, S.; RODRÍGUEZ INIESTA, G., Aproximación al contenido laboral de la ley 16/2022, de 5 de septiembre, de reforma del texto refundido de la ley concursal: apostando por la lógica “preventiva”, “reestructuradora” y “conservativa” de la empresa y del empleo, *Revista Crítica de Relaciones de Trabajo, Laborum*, 5, 2022, 11-35.  
<https://revista.laborum.es/index.php/revreltra/article/view/658/756>

MONZÓN CARCELLER, N., El procedimiento especial de concurso para microempresas del Proyecto de Ley de Reforma del Texto Refundido de la Ley Concursal, *Diario La Ley*, 10122, 2022.

[https://diariolaley.laleynext.es/Content/Documento.aspx?params=H4sIAAAAAAAAAEAC1OTWvDMAz9NfMIUJKWNidfslwGY5Qt7K7YwIFx7E6W0-Tfz\\_0OPPOk3tPTX0beBlxFw5XjSjMYiqFidDRjqC6ZyZKJFbCOyT4mlbYQwzbrgTMqgTHp-q01TcFegZEMvo9GN3dOCw4w6lpFtsjdVphEaf-NSbftXqUp3r5glOdSQjvg51GyVvdDXepwPDXHg1qQUxHoX3IYBNVEbvskKc-IbCZzuBQfwOq\\_-8gXdfXussixTpK-HnMyvjSexB8B4\\_BvkL\\_AS93Nx8IAQAAWKE](https://diariolaley.laleynext.es/Content/Documento.aspx?params=H4sIAAAAAAAAAEAC1OTWvDMAz9NfMIUJKWNidfslwGY5Qt7K7YwIFx7E6W0-Tfz_0OPPOk3tPTX0beBlxFw5XjSjMYiqFidDRjqC6ZyZKJFbCOyT4mlbYQwzbrgTMqgTHp-q01TcFegZEMvo9GN3dOCw4w6lpFtsjdVphEaf-NSbftXqUp3r5glOdSQjvg51GyVvdDXepwPDXHg1qQUxHoX3IYBNVEbvskKc-IbCZzuBQfwOq_-8gXdfXussixTpK-HnMyvjSexB8B4_BvkL_AS93Nx8IAQAAWKE)

MORALEJO MENÉNDEZ, I., Ley 16/2022, de 5 de septiembre, de reforma del texto refundido de la Ley Concursal, aprobado por el rd Legislativo 1/2020, de 5 de mayo, para la transposición de la Directiva (UE) 2019/1023, del Parlamento Europeo y del Consejo (Directiva sobre reestructuración y solvencia)[BOE-A-2022-14580], *Reforma de la Ley Concursal: ordenación del concurso, precurso y procedimientos especiales para microempresas. AIS: Ars Iuris Salmanticensis*, 11, 2023, 225-240.

NIETO DELGADO, C. Procedimiento especial de microempresas: sobrevino el desastre anunciado, *Revista General de Insolvencia & Reestructuraciones* 10, 2023, 133-157.

LÓPEZ MÁÑEZ, L. E., Reflexiones sobre la forma de cumplimentar los formularios normalizados en el Procedimiento especial de microempresas. *La Ley Insolvencia: Revista profesional de Derecho Concursal y Paraconcursal*, 17, 2023.

OSNA, G. Acceso a la justicia, cultura y *online dispute resolution*. *Derecho PUCP*, 83, 2019, 9-27, DOI: <https://doi.org/10.18800/derechopucp.201902.001>

PAVÓN NEIRA, C., *Mecanismos preconcursales: precurso y planes de reestructuración*, Aferre, Bartzelona, 2023.

PEREA GONZÁLEZ, A. La plataforma electrónica de liquidación de bienes en el Anteproyecto de Ley de reforma del Texto Refundido de la Ley Concursal: disección y perspectiva crítica, *Práctica de Tribunales: revista de derecho procesal civil y mercantil*, 152, 2021.

PULGAR EZQUERRA, J. Rescisorias concursales y *prepack* en la propuesta de segunda directiva de insolvencia: su transposición al derecho español, *Revista de Derecho Bancario y Bursátil*, 171, 2023, 11-58.

RIVAS URBINA, R. Enajenación de la unidad productiva y *pre-pack* en el proyectado procedimiento especial para microempresas, *Anuario de derecho concursal*, 56, 2022, 121-146.

RIVAS URBINA, R., Los planes de reestructuración en el nuevo régimen de la insolvencia español. *Revista Boliviana de Derecho*, 35, 2023, 626-657, [Los planes de reestructuración en el nuevo régimen de la insolvencia español - Dialnet \(unirioja.es\)](#)

SANJUAN Y MUÑOZ, E., *Reestructuración y liquidación de microempresas en crisis. El procedimiento especial para microempresas y su régimen transitorio*, Tirant lo Blanch, Balentzia, 2022.

SANTISO VÁZQUEZ, F. ¿Puede celebrarse una venta de la unidad productiva a través del portal de subastas del BOE?, *La Ley Insolvencia*, 5, 2021.

TIRADO MARTÍ, I. El procedimiento especial para microempresas en el texto refundido: ¿Una oportunidad perdida?, *Revista General de Insolvencias & Reestructuraciones*, 7, 2022, 237-279.

[https://www.iustel.com/v2/revistas/detalle\\_revista.asp?id\\_noticia=425268&popup=](https://www.iustel.com/v2/revistas/detalle_revista.asp?id_noticia=425268&popup=)

VELA PÉREZ, J., El procedimiento especial de microempresas, *Anuario de Derecho Concursal*, 58, 2022, 475-510.

YANES YANES, P., El “experto en la reestructuración”, *Revista Canaria de Administración Pública*, 1, 2023, 147-180,

<https://revistacanarias.tirant.com/index.php/revista-canaria/article/view/5>

## **ARAUBIDEA**

Directiva (UE) 2019/1023 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 20 de junio de 2019, sobre marcos de reestructuración preventiva, exoneración de deudas e inhabilitaciones, y sobre medidas para aumentar la eficiencia de los procedimientos de reestructuración, insolvencia y exoneración de deudas, y por la que se modifica la Directiva (UE) 2017/1132 (Directiva sobre reestructuración e insolvencia).

Proyecto de Ley de reforma del texto refundido de la Ley Concursal, *Boletín Oficial de las Cortes Generales*, 2022.01.14.

Proyecto de Ley de reforma del texto refundido de la Ley Concursal 121/000084, *Boletín Oficial de las Cortes Generales*, 2022.07.07,

[https://www.congreso.es/public\\_oficiales/L14/CONG/BOCG/A/BOCG-14-A-84-6.PDF](https://www.congreso.es/public_oficiales/L14/CONG/BOCG/A/BOCG-14-A-84-6.PDF)

Real Decreto Legislativo 1/2020, de 5 de mayo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley Concursal.

Ley 5/2012, de 6 de julio, de mediación en asuntos civiles y mercantiles.

Real Decreto 980/2013, de 13 de diciembre, por el que se desarrollan determinados aspectos de la Ley 5/2012, de 6 de julio, de mediación en asuntos civiles y mercantiles.

Ley 18/2022, de 28 de septiembre, de creación y crecimiento de empresas.

Orden JUS/1333/2022, de 28 de diciembre, de condiciones de acceso y modo de funcionamiento del servicio electrónico, para la cumplimentación de los formularios normalizados y de las especificaciones técnicas de la plataforma electrónica de liquidación de bienes previstas en la Ley 16/2022, de 5 de septiembre, de reforma del texto refundido de la Ley Concursal.

## **JURISPRUDENTZIA**

Auto del Juzgado de lo Mercantil 164/2023 (sección 6 Madrid), del 13 de abril de 2023, ECLI:ES:JMM:2023:164A

Auto del Juzgado de lo Mercantil 1903/2023 (sección 2 Santander), del 11 de julio de 2023, ECLI:ES:JMS:2023:1903A

## **BESTELAKO ITURRIAK**

ALMENDROS, A., *Prepack concursal: qué es y cuáles son sus ventajas para tu empresa si pasa por una crisis de insolvencia*, Antonio Almendros Abogados, 30 de marzo de 2023.

<https://antonioalmendros.com/prepack-concursal-que-es-y-sus-ventajas-para-tu-empresa/>

ASOCIACIÓN ESPAÑOLA DE MUJERES PROFESIONALES DE LA INSOLVENCIA.

Pleno de la Sala de Gobierno del Tribunal Superior de Justicia de las Islas Baleares de 5 de mayo de 2021, por el que se adopta el Protocolo *Pre-Pack* Concursal Baleares, <https://aempi.es/wp-content/uploads/2021/05/PROTOCOLO-PRE-PACK-BALEARES.pdf>

BANCO DE ESPAÑA, *Encuesta de competencias financieras en las pequeñas empresas 2021: principales resultados*.

<https://www.bde.es/wbe/p/bb26e71d15712810VgnVCM1000001af614acRCRD/webbde/GAP/informacion-embargada/do2129.pdf>

BANCO DE ESPAÑA, *Informe Anual 2021*, Madrid, 2022,

[https://www.bde.es/f/webbde/SES/Secciones/Publicaciones/PublicacionesAnuales/InformesAnuales/21/Fich/InfAnual\\_2021.pdf](https://www.bde.es/f/webbde/SES/Secciones/Publicaciones/PublicacionesAnuales/InformesAnuales/21/Fich/InfAnual_2021.pdf)

COMISIÓN EUROPEA, Comunicado de prensa de la Comisión Europea y de la presidencia portuguesa del Consejo de la UE Bruselas, 22 de marzo de 2021, [https://spain.representation.ec.europa.eu/document/download/102ef0fa-1b4c-4af7-b5f3-168242b83634\\_es](https://spain.representation.ec.europa.eu/document/download/102ef0fa-1b4c-4af7-b5f3-168242b83634_es)

ESCOLÁ BESORA, M.E., Concursos de microempresas sin abogado. ¿Será la solución?, *Cinco Días*, 2024.02.18, [https://cincodias.elpais.com/cincodias/2022/02/18/legal/1645169117\\_121328.html](https://cincodias.elpais.com/cincodias/2022/02/18/legal/1645169117_121328.html)

ILLUSTRE COLLEGI DE L'ADVOCACIA DE BARCELONA. Protocolo *Pre-pack* concursal: directrices para el procedimiento de tramitación, de los Juzgados Mercantiles de Barcelona, de 20 de enero de 2021, <https://www.icab.es/es/actualidad/noticias/noticia/La-CRAJ-informa-Protocolo-para-el-procedimiento-de-tramitacion-del-pre-pack-concursal>

MELER NURIA, El nuevo procedimiento para pymes insolventes encalla con la tecnología, *Cinco Días*, Bilbao, 30/01/2023. [https://cincodias.elpais.com/cincodias/2023/01/27/legal/1674815742\\_063108.html#](https://cincodias.elpais.com/cincodias/2023/01/27/legal/1674815742_063108.html#)

MINISTERIO DE INDUSTRIA Y TURISMO. Portal IPYME, Cifras PIME 2021-2024, <https://ipyyme.org/es-es/publicaciones/Paginas/estadisticaspyme.aspx>

REVENGA, J. El concurso de microempresas: la perfecta cacharrería para elefantes en crisis, *Hay Derecho*, 2021.10.01. [El concurso de microempresas: la perfecta cacharrería para elefantes en crisis - HayDerecho](#)

UK GOVERNMENT, Bankruptcy insolvency forms, <https://www.gov.uk/government/collections/bankruptcy-and-insolvency-forms>

UNCITRAL, Comisión de las Naciones Unidas para el Derecho Mercantil Internacional (CNUDMI) *Tabla de concordancia entre las Recomendaciones Legislativas de la CNUDMI sobre la Insolvencia de las Microempresas y Pequeñas Empresas y las recomendaciones de otras partes de la Guía*, [https://uncitral.un.org/es/insolvency\\_table\\_of\\_concordance\\_part\\_5](https://uncitral.un.org/es/insolvency_table_of_concordance_part_5)

UNITED STATES COURTS. Bankruptcy Forms, <https://www.uscourts.gov/forms/bankruptcy-forms>